

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a / 732. zenbakia



MIKEL LUPIAÑEZ

Aramaio erreka lanen eraginez, San Barbarako parkearen zati bat "jan" egin dute dagoeneko hondeatzeko makinek.

OBRAK / Santa Barbara parkeraino iritsi dira kolektorearen lanak

## Santa Barbara parke inguruko lanak, 2006ra arte

UBANE MADERA

Aramaio erreka ubidea handitu egingo dute Santa Barbara parkeari dagokion zatian. Lan horiek eragina izango dute hango jolasparkean. Eta Udalak hori aprobetxatu eta parkea berritu egingo du. Hain zuzen ere, 2006ra arte jardungo dute lanean.

Udaletik jakinarazi digutenez, Aramaio errekan bi lan egiten dabil-tza joan den asteaz geroztik. Bate-

rik, erreka ubidea handitu egin behar dute zati horretan: "Udalak egindako ikerketen arabera, gune horrek uholdeak jasateko arriskua zuen euri handiak eginez gero". Halaxe adierazi digu Udaleko teknikari Alberto Loitik. Halaber, gaineratu digu uholde arrisku hori saihesteko, Muxibar plazatik Uda-la plazarainoko erreka zatiari bide zabalagoa egingo diotela eta sakontasun handiagoa eman.

Bestetik, Aramaio erreka beste gune batzuetan egin duten moduan, zati horretan kolektorea

sartuko dute, herriko ur zikinak batzeko intertzeporea.

### JOLASPARKEA BERRITU EGINGO DUTE

Horrez gainera, Loitik jakinarazi digu Udalak Santa Barbarako jolasparkea berritzeko asmoa bazuela, lehenagotik. Hala, Aramaio errekan egin beharreko lanek jolasparkean eragina izango dutenez, oraintxe aprobetxatuko dute-la berrikuntza lanak egiteko. "Asmoa da parkeko egurrezko zubitik pergolarainoko zati guztia berritzea eta hobetzea".

## Gaitzespen oharrak, Batzokiari eraso egitearren

U.M.

Eguazten gauean Batzokiak jasan zuen eraso gaitzesteko oharrak bidali dizkigute. Gipuzko Buru Batzarrak, Aralarrek eta PPK eta PSE-EE alderdiek eraso gaitzetsi eta elkartasuna adierazi dute.

Halako ekintzak gaitzesteaz gainera, EAJko Gipuzko Buru Batzarrak bat egin zuen kaltetuekin eta "helburu politikoak lortzeko biolentziaren aurkako jarrera" agertzeaz gainera, zera adierazi zuen: "atentatu hauek etikoki eta moraliki gaitzesgarriak izateaz gain, gure herriaren normalkuntzaren eta

baké-bidearen helburuetatik urruntzen gaituzte eta ez dute eskal hiritar gehienek borondatea errespetatzen".

Aralarrek, berriz, bestelakoan artean adierazi zuen halakoek "bizikidetzaz zaildu eta bakerako eszenatoki posible baterako oztopoak ezarri besterik ez dutela egiten. (...) Elkarrizketa eta adostasunak bilatzeko ahaleginen gaineko hitzak entzuten ari garen arren, eta bide politikoetatik aurrera egin beharraz hitz egiten den arren, horrelakoek atzerako urratsak baino ez dituzte ekartzen".

Bestalde, esandako moduan, PPK eta PSE-EEK eraso gaitzetsi eta elkartasuna adierazi zuten.

## Ertzaintzak Maritxun egindakoa gaitzetsi egin dute

U.M.

Maritxu Kajoi egunean, Ertzaintza Arrasateko erdigunean ibili zen, "legezkoak ez ziren pankartak kentzen". Zenbait gazte identifikatu zituen. Askatasunak gaitzetsi egin du erakutsitako jarrera.

Askatasunaren prentsa oharren arabera, "goizaldeko zortzietatik Ertzaintza Maritxu Kajoi eguna ospatzeko antolatzen ari ziren txosna gunean zebilen jadanik, zerbait harrapatuko ote zain". Gaineratu dute, "goizeko hamai-kak aldera, gazte batzuk txosnak prestatzen ari zirela, sei bat ertzain hurbildu eta txosnetako fondoak

(pankartak, afixak...) kenarazi zizkietela. Bost lagun identifikatu dituzte eta bati atxilotzeko mehatxua egin diote". Irati tabernara sartu zirela ere salatzen dute; eta Ferreriasen kartel denak kendu zituztela, CESPak lagunduta.

Horren aurrean, besteak beste, "Askatasunak gogor salatzen du Ertzaintzaren jarrera errepre-sibo, probokatzailer eta agintzailea. CESPako langileak han egotea ere norbaitek agindua atzetik dagoela adierazten du".

Bukatzeko, gaineratu du "eskubide urraketen salaketa agerian uztea badirudi norbaiti mina egiten diola eta errealtate gordin hori gorde nahian berriro ere erreprezioarekin erantzun dute".



San Andres 7 20500 ARRASATE Tel.: 943 79 13 39



Estación de Servicio  
**ARRASATE**



**30 urte zuen zerbitzura**  
**Zuen fideltasuna saritu nahi dugu**

**Urriaren 3tik 30era autoari erregaia botata, saria eraman dezakezu.**  
**Astero 50 sari zozketatuko ditugu.**

**Hauek dira sariak: 10€, 20€ eta 30€-ko txartelak erregaia botatzeko eta 30 txartel auto garbigailua erabiltzeko.**

## Ikasturte hasiera eta emakumeen gaineko lantegia, Emakume Txokoan

UBANE MADERA

Urriaren 22an, zapatua, ikasturteari ongietorria egingo diote Emakume Txokokoek. Egun horretan ikuskizun berezia egingo dute Herriko Plazan. Edozelan ere, zenbait ikastaro egiten hasita daude dagoeneko eta datorren astean, Emakumeen Historia izeneko lantegia hasiko dute.

Bi orduko lau saio izango ditu Emakumeen Historia lantegiak. Urriaren 20an eta 27an eta azaroaren 3an eta 10ean izango dira mintegiak, 18:00etatik 20:00etara. Oraindik posible da izena ematea: 943 79 14 39.

### EMAKUMEAREN LANA AGERIAN

Hezkuntza tradizionalan emakumeen gainean askotan kontatu ez dena helarazi nahi zaie lantegiko parte-hartzaileei. Hala adierazi digu Emakume Txokoko dinamizatzaile Ana Txurrukak. "Garrantzitsua da emakumeak Historiari egin dizkion ekarpenak agerian ipintzea, gure memoria historikoa delako. Oro har, helburua da emakumea agerian ipintzea".

### OROTARIKO EDUKIAK

Edukiei dagokienez, hainbat esparru landuko dituztela jakinarazi digu. Emakumearekiko mendealdeko pentsamendua aztertuko dute, zela emakumea askotan subjektu moduan baino objektu moduan ageri den. Aztertuko dute, baita ere, zela eraikitzen diren genero rola; emakumearen eta lanaren arteko ibilbide historikoa. Bestalde, gure herrira gerturatuta, emakumeak base-riarekin izan duen harremana ere aztertuko dute eta, besteak beste, Ikastolaren sorreran emakumeak egin zuen lana.

### IKASTURTE HASIERA

Bestalde, eta lehen esandako moduan, urriaren 22an ikastur-

Ongietorri ekitaldia iragartzen duen kartela.

*Ongietorri ekitaldi berezia egingo dute, urriaren 22an, 19:00etan, Herriko Plazan*

teari ongietorria egiteko ekitaldia antolatuko dute. Dantza, musika eta kantua uztartuko dituen ekitaldia izango dela iragarri dute: olerki arabiar bat euskarazko bertsoetan itzuliko dute.

*Azarorako aurreikusitako sexualitate lantegia urriaren 26ra aurreratu dute*

19:00etan hasiko da ekitaldia, Herriko Plazan.

Horrez gainera, jakinarazi digute azarorako aurreikusitako sexualitate lantegia urriaren 26ra aurreratu behar izan dutela.

## ASPACEri egoitza uzteko borondatea berretsi du Udalak

U.M.

Garunetako elbarritasuna duten gaixoez arduratzen den elkarteak egoitza zerbitzua izango du etorkizunean Arrasaten. Oraingo astean, Udalak berretsi egin du zerbitzu horretarako egoitza uzteko borondatea.

Hain zuzen ere, Zerrajera inguruan eraikitzeaz dagoen eraikinean 1.000 metro koadroko lokala utziko dio Udalak ASPACEri. Lanak hasita daude, baina ez bukatuta; horrenbestez, oraingo ezin dute lokala uzteko Udalak duen borondatea bete, baina lokala egokituta izan bezain laster beteko dute.

ASPACEk orain dela hiru urte egin zuen eskaera Arrasaten, "eskualdeko gurasoek eta erabiltzaileek etxetik gertu dagoen egoitza-zerbitzu bat izan dezaten, garun elbarritasuna duten pertsonendako". Udalak orduan erantzun zuen "behar hori kontuan hartuko zutela eraikineko lokalen erabiltzaileak zeintzuk

*ASPACEk 1.000 metro koadroko lokala eskatu du 20 lagunendako egoitza zerbitzua ipintzeko*

diren finkatzen den momentuan". Hala, oraingo astean, ASPACEk berretsi egin du eskaera, eta Udalak, berriz, berretsi egin du lokala uzteko borondatea.

### 20 LAGUNENDAKO EGOITZA ZERBITZUA

Hain zuzen ere, ASPACEk 1.000 metro koadroko lokala eskatu dio Udalari, 20 lagunendako egoitza zerbitzua ipintzeko. Kontua da hemendik gertuen Donostian dagoela halako egoitza bat eta ASPACEk "gura die hemengo erabiltzaileei zerbitzu hori eskaini". Edozelan ere, hori guztia zehazteko dago, ASPACEk Udalari lokalaren erabileraren gaineko proiektua aurkeztu beharko dio-eta.



Etxe horren teilatuan ikusten duzun antena pistu zuen auzotarrek kezka.

## Antenaren potentzia handitzeko Udal baimenik ez

U.M.

Santa Marinako auzotarrak pozik izango dira Udalak hartutako erabakiarekin. Izan ere, eta auzotarren eskaerarekin bat eginez, Udalak ez dio baimenik eman Euskalteli han duen antenaren potentzia handitzeko.

Kontua da Euskaltel bere kabuz hasi zela antena haren potentzia handitzeko lanak egiten Santa Marinan. Baina zenbait auzotarrek Udalera jo zuten hori salatzeko, ez zuten nahi-eta, antena haren potentzia handitzerik.

Izan ere, auzotarrok susmoa zuten antena hark osasun arazoak eragiten dituela, nahiz eta hori demostratzea ia ezinezkoa izan.

*Egitamu Orokorrak zehazten du halako antenak Kurtzetxikin eta Murun ipini behar direla*

Gauzak horrela eta Ingurumen Sailean egoera aztertu ostean, aditzera eman zuten Udalak ez zuela antenaren potentzia handitzeko baimenik eman behar. Egitamu Orokorrak zehazten duenez, halako antenak Kurtzetxikin edo Murun egon behar direlako. Orain, Udalak berretsi egin du arrazoi hori eta baimena ukatu egin dio Euskalteli.

## Traba arkitektonikoak kentzen hasiko dira herriko zenbait lekutan

U.M.

Traba arkitektonikoak kentzeko Udalak duen egitasmoaren lehen faseari ekingo diote laster. Fase horretan, herriko 11 puntutako trabak kenduko dituzte. 25.800 euro pasatxo inbertituko ditu Udalak.

2005ean herriko 22 puntutako traba arkitektonikoak kentzeko asmoa du Udalak. 63.500 euroko aurrekontua dute horretarako.

Hala, oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrek egitasmo horren lehen faseari dagozkion lanak esleitu ditu.

### LEHENTASUNA DUTEN PUNTUAK

Hain zuzen ere, oraingo honetan herriko hamaika puntutan kenduko dituzte traba arkitektonikoak. Puntu horiek aukeratu dituzte lehentasunen arabera; hau da, gune edo leku horien era-

biltzaileen beharren arabera. Hala, lehen fase horretan, Abaroan kenduko dituzte traba arkitektonikoak, anbulatorioaren aurreko aldean ere bai, Bedoñabe eskolan, Musakolako gasolindegian, Gipuzkoako Foruen plazan, Zarugalde 54an eta Oñati kalean, esaterako.

### LEHENBAILEHEN HASI

Udalaren asmoa da lehenbailehen hastea lan horiek egiten. Frixi enpresari esleitu dizkiote. Eta Udal agindua jaso eta bi hilabete izango ditu hark lan guztiak egiteko. Urte amaierarako bukatuta izan beharko dituzte.

*Lehentasunen eta erabiltzaileen beharren arabera aukeratu dituzte hasierako puntuak*

ELKARRIZKETA

BEÑAT ARTZADUN/MUNDUKIDE

*“Ez dira etengabeko desgrazian eta negarrez bizi, baina bizimodua gogorra da”*

ARRASATE IRRATIA/UBANE MADERA

**M**undukide (1999an sortuta) elkarteko Beñat Artzadun Mozambiketiko etorri berri da, han hiru urtean bizitzen eta lanean ibili eta gero. Hain zuzen ere, Marrupa eskualdean ibili da, Mundukideren programa abiarazten.

**Zein da programaren helburua?**

Funtsean hamar bat urterako distritu hartan funtsezko azpiegitura fisiko eta sozialak abiaraztea. Hortaz, distrituan bertan egin dugu lan. 44.000 bat pertsonako eskualdea da eta hantxe egin dugu bizi eta lan.

**Hainbat enpresa eta hainbat errepede sortu dituzue...**

Bai. Funtsetako bat kooperatibagintza zen, baina Marrupa moduko testuinguru baten hori bakarrik egitea ez zen zilegi; orduan, errepedetan ere lanean aritu gara, nekazaritzan, osasunean eta hezkuntzan ere gauza batzuk egin dira... Horrekin guztiarekin nahi zen garapen sozio-ekonomikoari bultzada ematea.

**Zela egin duzue lan hori: hemengoak patroik eta hangoak langile, guztiak patroik eta guztiak langile...?**

Lana abiatzen da errespetuz. Sekula ahaztu ezin duzuna da beste norbaiten etxean zaudela. Bestalde, faltsua litzateke esatea harremanak erabat berdintasunezkoak direla; azkenean, dituzun baliabideak eta nolabaiteko boterea handi samarrak dira. Baina harremanak erabat berdintasunezkoak ez badira ere, errespetuaren barruan eramatea dira. Lanaren lehenengo pausoa beti da jendea ulertzea, zela bizi den, ingurunea ulertzea... eta hortik aurrera, jendearekin batera ideia batzuk aztertzen joan, zer egin daitekeen egoera hori aldatzeko edo hobetzeko eta gero lanean hasi.

**Hemendik Afrika urrutikosten dugu eta topikoz bete-**



BEÑAT ARTZADUN

**ta; zelakoa da ezagutu duzuna?**

Nik Marrupa ezagutu dut. Eta han ezagutu dudana da jendea beste leku guztietako modukoa dela: argia, horren argia ez dena, zintzoa, langilea eta bestelakoa. Bizimodua oso gogorra da jende gehienarendako. Baina gogortasun horren barruan jendeak aurkitzen ditu bere bizipozak. Ez dira etengabeko desgrazian eta negarrez bizi, baina bizimodua gogorra da. Edozelan ere, Mozambiketiko guztia ez da berdina. Maputo hiriburuan beste mugimendu bat dago, industriak daude, jendeak heziketa handiagoa dauka, askoz aukera gehiago ditu.

**Zertaz bizi dira Marrupan?**

Gehiengoa nekazaritzatik. Baina nekazaritzatik ateratzen da jateko adina, gutxi gorabehera, ez askoz gehiago. Hiru urte hauetan egin ditugun kalkuluekin, ateratzen zaigu dirutan maneiatzen duela urte batean familia batek

*“Zailtasunengatik eta gure mugengatik, badira ateratzen ez diren gauzak”*

gutxi gorabehera 85 bat euro. Janaria ez du erosten jende gehienak, etxea norberak eraikitzen du... Baina bai, dirutan oso diru gutxi erabiltzen dute gehienek.

**Mundukideren egitasmoaren barruan, enpresa batzuk sortu dituzue; enpresa horiek izango dira euren lantoki?**

Lehenengo eta behin esango nuke zuzentzia izan behar dugula. Enpresak laguntzen gabe, enpresa gehientsuenak zailtasunean dabilta, aurrera egiten

dute, baina kostata, urte hauetan izan dira hazi eta gero erori egin diren enpresak ere. Baina momentu honetan aukera politikak ere badaude: eraikuntzako enpresa bat badago nahiko pauso majoak ematen dabilena, aroztegi bat ere badabil hasi nahian, olio fabrika bat... Baditugu ikur positibo batzuk, batez ere, agertzen hasi dira pertsona batzuk gidaritza gaitasunarekin. Eta igual enpresa guztiak ez dira aurrera aterako, baina izango da gauza onik urte batzuen buruan, enpleguak sortuko dira eta aberastasun apur bat sortuko da.

**Besterik edo?**

Ez dut nahi jendeak halako irudi arrosarik izatea han egiten dugun lanaren gainean. Lana kostata ateratzen da, zailtasunengatik eta gure mugengatik. Hala, badira ateratzen diren gauzak eta ateratzen ez direnak. Batzuetan asmatzen dugu, eta bestetan ez.

LABUR

**Nortasun agiriak berritzera etorriko dira laster**

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, datorren urriaren 26an etorriko dira berriro nortasun agiriak berritzera. Arrasate pasealekuan dauden lehengo IMiren lokaletan egiten dute lan hori. Txandei dagokienez, urriaren 24an hasiko dira ematen. 08:00etan hasiko dira. Udaltzaingora jo beharra dago, edo telefonoz dei daiteke: 943 79 14 39. Bestalde, jakinarazi digute Udaltzaingoak gordetzen dituen galdutako objektuen artean, joan den abuztuaz geroztik motxila bat eta esterilla bat daudela han. Motxila, gainera, gauzaz beterik dago. Eta han dituzten bestelako objektuen artean, nabarmendu digute orain gaztetxoek erabiltzen dituzten eskulekudun patinete bi ere badituztela han. Beraz, norbaitek hala-korik galdu badu, Udaltzaingoa berreskura dezakeela.


**Zinegotziek euskara ikasteko eskolek aurrera egingo dute**

Udal Euskaltegiak txostena aurkeztu dio Udalari zenbait zinegotzik egin duten euskara ikastaroaren gainean. Haren arabera, “emaitzak onak izan dira eta aurreikusitako helburuak bete egin dira”. Gauzak horrela, erabaki dute oraingo ikasturtean euskara eskolekin segitzea. Udala 2003an hasi zen zinegotzien beharretara ego-kitutako eskolak antolatzen.

**San Isidroko ur-sarearen konponketa**

Gipuzkoa etorbidean, San Isidro inguruan uren sarea berri behar du Udalak. Lanak adjudikatzeko prozedura egiten dabil orain. Hala ere, 2005eko aurrekontuaren barruan sartuko dute berrikuntza.

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 14**  
Español. Araba etorb. 14 . . . . . 943 79 18 65
- ZAPATUA, 15**  
Ruiz. Maala 31 . . . . . 943 79 14 09
- DOMEKA, 16**  
Zabala. Zarugalde 42. . . . . 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 17**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15
- MARTITZENA, 18**  
Azkoaga. Iturriotz 17. . . . . 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 19**  
Corcuera. M. Aranbarri 1 . . . . . 943 79 22 26
- EGUENA, 20**  
Irizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 21**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . . . 943 03 53 00  
Iguatorialdea. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelheenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelheenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea. . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa. . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRIAOK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA. . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San'Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 10:00 (gaztelera) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa-Teresa eliza</b> Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
<b>Domeka</b> 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 11:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 12:00 (elebiduna)	<b>San Isidro</b> Domeka 12:30 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**IPUINEN GAINEAN**  
Martitzenean, hilaren 18an, *Ipuinaren ahalmena beldurraren aurrean* berbaldia egingo du Santa Marina auzoko liburutegian, 18:30ean. Hizlaria Juan Carlos Alonso psikologoa izango da, eta Udal Liburutegiak eta Galtzagorri elkarteak antolatu dute.

**'ZETA' ANTZEZLANA**  
Bihar, zapatua, Hika antzerki taldeak *Zeta* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:00etan.

**BIG BAND, DURANGORA**  
Etzi, domeka, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Durangoko Andra Mari elizan, 19:00etan.

**LUDOTEKA IBILTARIA**  
Azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du San Andresko gazte txokotan, 11:00etatik 13:30era. 3 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzenduta egongo da.

**REAL MCKENZIE KONTZERTUAN**  
Gaur, egubakoitza, Kanadako Real McKenzie, Bostongo Far from finished eta Never Surrender taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan.

**AEDren AGENDA**

**AED-KO BERTSO ESKOLAK**  
Berehala jarriko dituzte abian AEDko bertso eskolak, 2005-2006 ikasturtea hastear dago-eta. Interesa daukaten gaztetxoei jo dezatela AEDra.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**'Napartheid' komiki aldizkariaren aurkezpena**

Orain dela 10 urte, komiki aldizkariaren arduradunek Maritxu Kajoi eguna baliatu zuten azkeneko zenbakia aurkezteko. Okupazioaren gaineko monografikoa izan zen hura eta Arrasateko gaztetxean aurkeztea erabaki zuten. Horretarako, dotore-dotore jantzi ziren arduradunak.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Parra"*



—Bentanatik salto eññ nai badau be parra-parra josten jostak.

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 5	<b>5 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 8	<b>28 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>1,1 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 5	21 °C 5 °C - l/m²
Eguena, 6	24 °C 7 °C - l/m²
Egubakoitza, 7	27 °C 6 °C - l/m²
Zapatua, 8	28 °C 7 °C - l/m²
Domeka, 9	27 °C 10 °C 0,5 l/m²
Astelehena, 10	25 °C 11 °C 0,6 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Lore eta landareen gaineko azalpenak 'Igo Autobusera!' saioan, Irene Zenitagoiarekin**

107.7ko autobus lorategiaren geltokia izango du astero. Uda Giroan saioan ezagutu genuen Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiak sasoiko lore eta landareen gaineko azalpenak emango dizkigu. Udazkeneko lehen kapituluan, kilarraren gainean jardun dugu; asteburuko gainbegiratuan berreskuratuko dugu Zenitagoiak azaldu-takoak. Eguaztenean, berriz, azalea lorearen gainean jardungo dugu. Azalea edota etxeko beste lore baten gainean galderaren

bat izanez gero, zatoz 943 71 17 31 telefonoaren bitartez lorategira, eta erantzunarekin batera, lore eder bat eskuratzeko aukera izango duzu.

**PELLO ZABALA ERE BIDAILAGUN**

Hasi berri dugun Igo Autobusera! saioan, bidaia-lagun berri eta aurretik gurekin izandakoarekin ere elkartuko gara. Horrela, bada, martitzenetan, hamabostean behin, Arantzazurako bidea hartuko dugu, Pello Zabalarekin elkartu eta solasaldia izateko.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 Asteko gainbegiratua. Iraitz Agirre, Terranovan ibilitako arrasatearra; AGIFES, gutxitu psikikoaren familiartekoen elkarte; Lorategia geltokian, Kilarraren gainean...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko gainbegiratua.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!  
Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Elkarrizketak. Meteorologiaren geltokia. Ibilbi munduan geltokia. Zorion agurrak. (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu tabakuen kontrako legie?



**DAVID BARRIO**  
Langillie

Neu ez naz erretzaillie, eta ondo pentsetan jat tabernetan bi zonak banaketie. Eta lanien ezin dala erre? Hori be ondo pentsetan jat, keiek asko molestetan dustelako.



**JULEN IRAZOKI**  
Iksalke

Leku batzuetan holako prohibiziñuek jartie ondo pentsetan jat, baiñe beste leku batzuetan ez. Tabernetan, jabiek gure dauena egin biherko leuke, baiñe lanekue ondo dau.



**MARIBI DAVILA**  
Langillie

Oso lege gogorra dala. Ni erretzaillie naz, eta leku publikuetan prohibidute egotie ondo ikusten dot, baiñe lantegixetan erretzailliendako leku bat egon biherko leuke.




**MARIBEL GOÑI**  
Langillie

Neuk pentsetan dot lege gogorregixe dala. Oin ez dot erreten, baiñe erretzaillie izendakue naz, eta pentsetan dot lege horrek erretzaillien kontra egitten dauela gogor.



**MATILDE IGLESIAS**  
Langillie

Neuk ondo ikusten dot, baiñe ez dakit leku danetan errespetauko dauen. Lantokixen aspaldi gabitz holaixe, eta neu erretzaillie nazez kanpora jueten naz erretera.



**ANDER ALVARO**  
Iksalke

Neuk ondo ikusten dot, baiñe esan biherra dauket gogor samarra pentsetan jatela. Tabernetan, jabiek gure dauena egin biherko leuke. Dana dala, eskertuko dot lege hori.

## USTEAKUSTE

### Olatuak

**G**auza gehienak joaten dira bere onera. Hala dio esaerak. Aste honetan jakin dut Mundakako ezker-olatu famatua bueltatu dela. Orain dela hilabete batzuk itsas hondoan aldaketa batzuk egin zituzten eta horren ondorioz, munduko surflarien artean hain ezaguna den olatua desagertu zen. Jakin badakit atzerritar askok, batez ere australiarrek eta estatubatuarrek, Euskal Herriatik Mundaka bakarrik ezagutzen dutela. Oso bitxia da. Bitxia zen, baita ere, orain dela 10-15 urte abuzturo hemengo *istiluak* ikustera etortzen zen italiar mordoa. Alemaniar dezentere etortzen ziren hona hemengo tirabira politikoaren *morboak* erakarrita.

Azken finean, hori guztia bizi (izan) dugu, eta hedabideek ere hala saltzen dute. Hala ere, badirudi poliki-poliki ez bada ere, Euskal Herriko arazoak konpontzeko bidean joan daitezkeela, eta modu baketsu eta demokratikoago baten bizi izateko aukerak egongo direla. Baina horra heldu artean olatu askotan gora eta behera egin beharko dugu. Hor daukagu gertuko adibide bat, Irlandako surflarien esperientzia.

Bestalde, hemengo herritarrek ausardia, bizi-poza eta lan-gaitasun ikaragarria erakusten dute. Hori ere kanpoan ezaguna bilakatzen dabil.

IKER BARANDIARAN

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK LORONTZIAK ALDAMIOETAN** Loreak oso gustuko dituen irakurle batek aditzera eman zigun Arbolapetako lan batzuetan lorontzi bat jarri dutela. Fatxadan egiten dabilzan margotze lanetarako jarri dituzten aldamiotan aurkitu genuen lorontzia. Erdi txantxetan erdi serio, irakurle horrek honako hau esan zigun: "hainbeste zementu eta bestelakoen artean, eskertzen da loreak jartzea. Lan gehiagotan jarri beharko litzukete!". Ez da lehenengo aldia ARRASATE PRESSen loreen aldeko aldarrikapenak jasotzen ditugula.

## ASTEKODATUA

**20**

**LAGUNENDAKO EGOITZA ZERBITZUA, ASPEK**

Aspekek Udalari lokal bat eskatu dio. Udalak baietza eman dio eskaerari eta 1.000 metro koadroko lokala utziko dio 20 lagunendako egoitza zerbitzua ipintzeko. Udalak aditzera eman duenez, lokala Zerrajera inguruan izango litzateke.

## HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



### Ohorezko makila zuei

**K**alea pareta zuriz josten da zibilizazioaren historiaren une aurreratuetan aurkitzen garen honetan. Eskelak eta udal bandoek baino ez dute lekuri haieran. Eta hortik kanporakoei, *adierazpen libreko guneak*, perimetro itxiak, ematen zaizkie lasaigarri gisa. Inoiz hitz egin dut askotariko perimetroek eman dezaketenez...

Eta kalea, zorionez edo halabeharrez, zibilizatuon mundu-ikuskeran kabitzen ez diren zirikatzailez ere josten da garai hauetan. Ezarritako ordenuaren aurrean eraldaketa bilatzen duten munstroek hartzen dute kalea batzuetan; gaztetxeko banpiroak, udal agintariak zirikatzen dituzten kartel nuklearrak, *euskal poliziaren* onginahia susmotan jartzen duten margo toxikoak, taberna satanikoak, txosna mutanteak... Kalea arriskutsua bihurtzen da zuria ez denean. Hala, mundua kolore unifor-

mean ikusten duten horiek, uniforme jantzita, zuriz, zurikeriaz, gure bazterrak eta kontzientziak margotzen dituzte.

Baina boterean dagoenak ez du hau hain erraz ulertzen, bere aulkitik jaitsi eta herriari zertxobait begi ematen ez

badio. Zirikatzaileak forma zibilizatuetatik at dauden izaki deformeak baitira agintariaren begietara.

Halaxe gertatu zen iragan ostiralean ere, armazko uniformedunek, herrira bisita egin zigitenean. Festa

gosez, pareta biziak zuritu, taberna bazterrak garbitu eta txosnetako inguruak ordenatu zituzten. Kanean solte zebiltzan izaki arriskutsuenak ere geratu zituzten, eguneko eskarmentua jaso zezaten. Festaren amaieran pote bat ordaintzean kale egin ziguten, baina tira... bejondeiela! Udalaren ohorezko makila haientzat! Gainontzekook ohorezko makilakadekin konformatu beharko dugu eta!

**"Kalea arriskutsua bihurtzen da zuria ez denean, eta mundua kolore uniforme ikusten dutenek, zurikeriaz margotzen dute"**

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Itsaso Berezibar  
Amalia Mundinano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñzarain  
Añe Berezibar  
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK  
Mikel Lupianez

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

## Ford Mugarri Arrasatek idatzia bidaliko dio eskubaloi federazioari

XABIER URTZELAI

Joan den zapatukoa moduko arratsalde gutxi izan dituzte Arrasate Eskubaloi Taldekoek, eta eskerrak. Lehenengo Territorialekoak Hondarribira-iraino joan ziren jokatzera, eta hara iritsi orduko esan zieten epailerik ez zegoela. Andoni Arandoren esanetan, talde horrek ez du hitza bete.

Pozik daude Ford Mugarri Arrasate taldekoak, oso pozik, entrenatzailea batez ere. Joan den asteburuan, Lehen Territorial mailako hainbat partidu geratu ziren bertan behera, eta Arrasatekoena izan zen horietako bat: "Kontua da kategoria horietan epaile barik geratu garela", esan digu Arrasateko entrenatzaileak. Baina hori lehenago ere bazekiten, eta hala ere, Hondarribira-iraino joateko esan zieten: "Bi epaile goiko kategoriara igo dira, eta beste bi epailek utzi egin dute lan hori. Hala, hamar partidu epaitzeko lau epaile baino ez ditugu. Lehenago ere bagenekien hori, baina Hondarribiko taldeko arduradun batek esan zigun jokatzera joateko, eramango zutela epailerin bat".

Hara iritsi zirenean, Andonik ezin izan zuen arduradun horrekin bat egin; bai, ordea, presidenteari: "Presidenteak, baina, ez zekien ezer, eta gura banuen nik epaitzeko esan zidan. Baina hori ez da serioa, zelan epaituko dut nire taldearen norgehiagoka? Kategoria txikia izango balitz, akaso, baina Territorial mailan... Azkenean, hase-



Eneko Gartzia, Hondarribiko defentsarekin lehia.

GOIENKARIA

rretuta itzuli ginen, jokatu barik. Gainera, jokariengatik haserretu nintzen gehien. Maritxu Kajoi izanda, asko eta asko zaindu egin ziren, gero Hondarribira-iraino alferrik joateko".

Kontuan izan behar da atzeratutako norgehiagokak aste barruan jokatzeko dituztela: "Aste barruan nik ez dut Hondarribira-iraino joan behar, ez da eta Bergara edo Zumarragara joatea

bezala. Lekutan dago Hondarribia". Gertatutakoaren gainean protesta egiteko Arrasateko taldeak gutuna bidaliko dio bai federazioari, eta baita Hondarribiko taldeari ere: "Dena dela, horrela jarraitzen badugu, hilabete barru liga barik izango gara".

Oraingo astean Ford Mugarri Usurbilen kontra jokatu du Iturripen. Galdu edo irabazi, ea jokatu behintzat egiten duten.



### Mugarri Alkesak liderra hartuko du domekan, Auto Escuela Alava

Norgehiagoka bakarria galdu dute Arrasateko Saskibaloi Taldekoek, baina domekako kontrarioak bat ere ez. Lautik lau irabazita aurkeztuko da Auto Escuela Alava taldea Iturripen. Egia da aurreko denboraldiekin alderatuta Mugarri Alkesak hasiera ona izan duela, baina egia da baita ere, sailkapenari begiratuta orain artekoak ez direla kategoriako kontrario gogorrenak izan. /X.U.

## Arrasateko Xake Txapelketa inoiz baino parekatuagoa

X.U.

Arrasate Hiria Xake Txapelketa azken jardunaldia baino ez da geratzen, eta hainbat xakelari daude txapelketa irabazteko aukerekin. Joan den asteko berdinketek emozio handia eman diote txapelketa-ko azken txanpari.

Joan den asteko norgehiagoketan kontrario zuzenak ibili ziren zein baino zein gehiago, eta jokoan zer zegoen ikusita gutxi arriskatu zuten. Hala, aurrealdean dabilzaten partida gehienak berdinketarekin amaitu zituzten. Argandoña donostiarraren eta Navarro nafarraren arteko partida izan zen luzeena eta baita tentsio handiena izan zuena ere. Txapela irabazteko lehia dabilzan gainontzekoek berehala berdindu zuten. Hala, azken jardunaldian

Iñigo Argandoña, Miguel Navarro, Fran Miguel Quintero, Luis Olaizola eta Hernando Casas daude lau punturekin. Kontuan hartu behar da, baina, 3,5 puntu dituzten hainbat jokalarik ere aukerak dituztela azken jardunaldian ezustekoa emateko.

### ERRUGBIKOAK SANTOÑARA

Asteburu bateko atsedena izan eta gero, Arrasate Errugbi Taldeko mutilek ligari helduko diote berriro ere. ARTkoek Santoñara joan beharko dute asteburuan bigarren jardunaldia jokatzera.

### ORIOKO ATXABALPEN

Mondrak Oriokoren bisita izango du asteburuan Atxabalpen. Atzealdean dabil Orioko, baina Gordobilen mutilek ez dute gura ezusteko gehiago, joan den domekan Idiazabalekin gertatu zen moduan.



GOIENKARIA

Mungiarri irabazita, Santoñara joango dira Arrasatekoak puntu bila.

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

Mondra - Orioko

Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen

Mondra - Santo Tomas Lizeoa

Ohor. Gazteak. Domekan. 16:30. Atxabalpen.

Aurrera Ondarroa - Arrasate

Kadet. Zapatuan. 11:30. Ondarroan.

Bergara - Arrasate

Infantilak. Domekan. 12:00. Ipintzan.

Aloña Mendi - Mondra

Emakumezkoak. Domekan. 11:45. Ibarren.

#### ERRUGBIA

Santoña - Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 16:30. Santanderren.

Arrasate - Eibar

Gazteak. Zapatuan. 11:00. Garagartzan.

### SASKIBALOA

Mugarri Alkesa Arra. - Auto Escuela Al. Seniorrak. Domekan. 12:30. Iturripen.

Atl. San Sebastian - Mugarri Alkesa Arra. Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Aieten.

Mugarri Alkesa Arrasate - Ordizia Juniorrak. Zapatuan. 16:30. Musakolan.

### ESKUBALOA

Ford Mugarri Arrasate - Usurbil Lehen Territ. Domekan. 11:30. Kiroldegian.

Arrasate - Groseko Cocinas Gros Bigarren Territ. Domekan. 10:00. Iturripen.

Verkol Aloña - Arrasate

Gazteak nesk. Domekan. 12:00. Zubikoan.

### PILOTA

Añorga - Arrasateko

Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Añorgan.

Arrasate - Olalde

Infantilak. Zapatuan. 17:00. Osintxun.



Aurtengo ekainean estreinatu dute antzezlan, eta ikuskizuna egiteko agenda bete-beteta dute.

## Alessandro Bariccoren 'Seda' eleberri arrakastatsua, euskaraz antzeztuta

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Hika antzerki taldeak *Zeta* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Alessandro Baricco idazlearen *Seda* eleberria antzeztan bihurtu, eta euskaraz eskainiko dute.

Alessandro Baricco idazle eta dramagileak hainbat liburu hunkigarri kaleratu izan ditu. Horien artean, *Novcento* eta *Seda* dira ezagunenetarikoak. Hika antzerki taldeko lagunek azken lan hori antzeztan bihurtzea erabaki zuten. Bazekiten ez zela erraza izango, baina saiatzea erabaki zuten, eta baita lortu ere. Aurtengo ekainean estreinatu zuten eta oso harrera ona izan du. Are gehiago, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat antzokitan egiteko eskaerak izan dituzte, eta agenda lepo beteta dute.

Eleberri horren gainean adituek halako adierazpenak egin dituzte: "Elezahar eta istorioen arteko nahasketa oso berezia" (*Corriere de la Sera*); "Eleberriak duen erotismo eta samurtasunak txundituta utzi ninduten. Inoiz irakurri dudana eleberri hunkigarrietakoa da" (*Daily Telegraph*)..., besteak beste.

Arantza Iturbe eta Agurtzane Intxaurren arduratu dira eleberri hori antzeztan bihurtzen, eta istorioa gaztelerara eta euskarara egokitzen. Arantza Iturbek hainbat liburu kaleratu ditu, antzerkirako ere idatzi izan du, eta gaur egun Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* magazinaren zuzendaria da, besteak beste.

Agurtzane Intxaurren Hika antzerki taldearen sortzaileetako

bat da. Aktorea ere bada, baina aspaldian antzerkian zuzendari lanak egiten ditu. Horrez gain, ETBko *Goenkale* telesaileko aktoreen zuzendari eta gidoigilea ere bada. Biek hala biek ilusio handiz eta errespetuz hartu zuten lan hau antzokietara egokitzeke egin beharra. "Eleberria irakurri nuenetik 3 urte bete diren honetan, eskerrak eman behar dizkiot Bariccoren istorio hunkigarri hori antzeztan bihurtzen utzi izanagatik", azaldu zuten antzeztanaren zuzendari Agurtzane Intxaurren.

### ESKOLA HANDIKO AKTOREAK

Aktoreak asko eta onak dira, eta horietako batzuk ezagunak dira: Itziar Ituño (Helene), Victor Criado (Herve), Kandido Uranga (Baldabiu), Lierni Fresnedo (madame Blanche), Mikel Tello (Hara Kei), Arantxa Iglesias (ekialdeko

begiak ez dituen emakumea) eta Patxi Gonzalez (alkatea), hain zuzen ere.

Horiek guztiak aktore profesionalak dira, eta urte dezente daramatzate telebistarako eta antzerkirako lanak egiten.

Musikak garrantzia handia dauka ikuskizun horretan, batez ere *tempo*-a lortzeko bidean. Horren ardura izan dute Jabier Muguruza musikagile ezagunak eta baita Maite Aseginolazak ere bai. Muguruzak eta Aseginolazak elkar ezagutzen dute Jabierrek Les Mecaniciens taldea abiatu zuenetik.

### HIKA TALDEAREN IBILBIDEA

Hika ez da talde berria antzerki-gintzan, ezta gutxiago ere. Eusko Jaurlaritzako Antzertiko azken ikasturteko lagunek 1990ean sortu zuten. Urte horretan *la cama sin hacer* ikuskizuna egin zuten; lau emakume ziren protagonistak.

Horren ostean ez dute atsedirik hartzeko astirik izan: 1991n, *Tropa chaplin* antimilitarista; 1992an, umeendako *Rápido* eta *Charlotadas* kale-ikuskizuna; 1993an, *Bienvenido enemigo* eta umeendako *¡babalibu! ¡babaliba!*; 1994an, *Las bellas de Easo* musikala; 1995ean, Bernardo Atxagaren *Henry Bengoa inventarium!*... Hortik aurrera, euskarari protagonismo handiagoa eman zioten: *Hau komeria*; *Xagukumeak*; *Arrautza delikatuak*; *Euskal off 2050* eta *Ai, ama!*, besteak beste.

Lan guzti horiek onespenean eta harrera oso ona izan dute, eta dagoeneko hainbat sari (Max sariak, besteak beste) eskuratu dituzte antzerki jaialdietan.

## 'Arrautza delikatuak' ikusteko azkenaurreko aukera

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, AEDk eta Kultur Errotak kafe-antzerki ikuskizuna egingo dute Jai Zale tabernan. Hika antzerki taldeak *Arrautza delikatuak* ikuskizuna egingo du 23:00etan, doan.

Orain dela 5 bat urte, Hika antzerki taldeari euskararen aldeko ikuskizun bat egiteko enkargua egin zioten. Agurtzane Intxaurren idatzi zuen, eta Mireia Gabilondok hartu zuen kafe-antzerki ikuskizun hori zuzentzeko ardura. Aktoreak ere ezagunak dira: Teresa Andonegi eta Mikel Laskurain, hain zuzen ere.

Datorren egubakoitzean, Arrasateko Jai Zale tabernan azkenaurreko aldiz egingo dute *Arrautza delikatuak*. "Denbora luzea egin dugu ikuskizun horrekin eta oraindik eskatu egiten diguten arren, bada ordua ikuskizun hori bota eta beste gauza batzuk hartzeko. Izan ere, badut beste bazarriketa bat esku artean", azaldu zigun Mikel Laskurainek.

Antzeztan hori ehunka lekutan egin dute: "Tabernetan, kul-

tura etxeetan, osoko bilkuren aretoetan, elizetan... Eta mota guztietako ikusleen aurrean: haxix-erretzaileak, erretiratuak...".

### EUSKARAREN ALDEKO ERREBINDIKAZIOA

Ezohiko ikuskizuna da. Emakume batek Elorrioko euskararen gaineko ikerketa aurkeztuko die ikusleei. Horietako batek ez du gustuko izango entzungo duena, eta berbaldia ematen dabilenarekin eztabaidatzen hasiko da.

Formatu txikiko antzeztan komikoa da. Horrez gain, euskararen aldeko errebindikazio sutua egiten dute. "Elorrioko euskara aipatzen dugu, baina beste edozein herritako euskara ere izan zitekeen. Izan ere, nik ikuskizunean Bergarako euskara, batua eta gaztelania apur bat egiten dut. Eta kasualitate hutsa izango da, baina Elorrioren ez dugu inoiz eskaini".

### AZAROAN, KULTUR ERROTAREN BESTE BAT

AEDko arduradunek aditzera eman digute urtea bukatu aurretik, azaroaren 24an hain justu, beste ikuskizun bat egingo dutela Arrasaten. Jon Arretxe idazleak *Griot* izeneko lana egingo du, dantza eta literatura batuta.



Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi dira ikuskizuneko protagonistak.

## LABUR

### Hollywoodko bi izarren akziozko komedia emango dute Amaia Udal Antzokian

Gaur, egubakoitza, zapatuan eta astelehenean, *Señor y señora Smith* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. 120 minutu irauten du eta Doug Liman-ek zuzendu du (*Viviendo sin límites*, *El caso Bourne*...). Protagonistak honako hauek dira: Brad Pitt (*Ocean's twelve*, *El club de la lucha*...), Angelina Jolie (*Alejandro Magno*, *Lara Croft*...) eta Vince Vaughn (*Be cool*, *Starsky y Hutch*...).

Pitt eta Jolie senar-emazteak dira, eta biak hala biak soldatapeko hiltzaileak dira. Halako baten, batak bestea hil egin behar du. Bihar, zapatua, umeendako *Valiant* filma emango dute. 109 minutu irauten du eta Gary Chapmanek zuzendu du.

## BOTEPRONTUEN

## Miren Maiztegi

## NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

XABIER URTZELAI

Miren bergararra da eta Salamanca egin euen ikasketak. Bere lankide Nagore, barriz, mondraquetarra da eta Bartzelonan ikesi euen. Eta, ibarreko neska bi horreik Aretxabaletan ipiñi daue fisioterapia zentru; maiatza ezker dabitx hantxe lanien.

## Zergaittik Naren?

Ez dauko misterixo haundirik. Lelengo letrak Nagore izenetik hartu geuen, eta azkenekuek Miren izenetik. Holaxe jarri gutzen Naren izena.

Lanpetute ibilli biher dozue fisioterapeutok; gerueu eta zentro gehixeu dauz.

Bai, hori egixe da. Azken baten, jentie gerueu eta gehixeu zainketan da eta medikuen betiko pastillak hartu biherrien gureu dau fisioterapien bittartez daukon miñek osatu. Egixe da, baitte be, Debagoienien jentiek deporte morderue egitten dauela.

## Zelako jentie eukitten dozue?

Egixe esateko, danetik euki dou. Fabrikan kataien lanien dabilen jentie, ordenadore aurrien lan egitten dauelako bixkerra edo besuek minddute daukona, deportistak...

## Ze diferentzia dau?

Deportisten artien danetik dau. Batzuk lesiño bat tratau guran etorten die, eta beste batzuk masaje bat hartzera, beste barik. Adibidez, laster egingo daude Behobia-Donostia maratoni erdixe eta jentie masajiek eta holakuek hartzera etorten da, hankek hobeto deskantsetako. Lesiñuek, normalien, hanketakuek izeten die: belaueneko miñek...

Holaxe jarraituz gero, Belorrieta auzue osasun zentro bihurtu biher dozue.

(Barre). Bai, fisioterapia zentro bi gauz, podologia zentro bat eta baitte farmazia be!

Ondo-onduen dauketzue kompetentzia...

Bai. Hamentxe topau geuen lokala, eta geure zentru zabaldu geuenien eurengea juen gitzen



*"Jentie gerueu eta gehixeu zainketan da, eta horregaittik dauz horrenbeste fisioterapia zentro"*

bisitan, nortzuk gitzen esatera, eta oso ondo hartu gintuen. Jente jatorra da, eta danondako lana dauela esan euskuen.

Fisioterapia egittiez gain, baiñe, Nagorek eta bixok ikesten jarraiketean dozue.

Bai. Osteopatia ikesten gabitz, miñek tratetako orduen beste ikuspegi bat eukitteko. Gaiñera, lanbide honetan beti ibiltten gare ikastaruek eta holakuek egitten.

Holako zentro bat zabalaketako apostu fuertie egin biher da. Laguntzarik egoten da?

Laguntzak egoten die, baiñe ez pentsau beste mundukuek dienik. Nagorek eta bixok etxien topau dou laguntza haundixena, eta hasie-

*"Laster egingo daue Behobia-Donostia maratoni erdixe, eta jentie masajiek hartzera etorten da"*

ran erabakixe hartzie asko kostau jakun arren, oso gustora gabitz. Lanien hasten zarenien bilddurerek alde batera geraketan die.

Lana alde batera itxitte: ze dauko sobran Debagoienak?

Ataskuek! Bergararik Aretxabaletara etorteko denpora morderue biher izeten dot goixetan. Ez dakit autopistiegaittik edo zergaittik, baiñe kriston ataskuek egoten die.

## Eta ze dauko ona?

Inguruek oso polittek diela. Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Aupa Etxebeste!, esan biherko dot (barre); ikusi dot, eta gustau egin jat. / Once minutos / Manu Chao gustetan jat.

## NIREBIDAIAHURA/ Jon Baltzategi

Norvegiara / 2005eko udan.

Zodiac-ean itsas txakurrak ikustera egin zuten bidaia izan zen Garik eta Jonnek egin zuten lehena, baina ez azkena: "Iñaki turistei baleak erakusteko bidaiak antolatzen dituen enpresa batean izan da lanean, eta birritan eraman gintuen berarekin. Horrelako pribilegioak izatearekin batera, beste gauza on bat izan da Iñaki gidari lanetan ibili dela guretako, edozein gauzaren gaineko azalpenak eman dizkigula". Hala joan ziren baleak ikustera: "Ikusgarria zen. Eurek ondo dakite baleak non dauden, eta zona horretara eramaten dituzte turistak. Baleak burua nola ateratzen duten, nola hartzen duten arnasa, nola jartzen duten gorputza luze, eta azkenik, nola ateratzen duten isatsa berriro ere urperatu aurretik... Ikustekoa!".




*"Arrainak garbitu eta turistei oparitzen hasi ginen"*

Baleen gainean asko ikasi du Arrasateko bikoteak: "Jakina da Norwegian baleak arrantza daitezkeela, baina ez edozein bale. Gainera, neurri zorrotzak hartzen dituzte. Enpresek baleak arrantzatze orduan puntuketa sistema berezia dute. Balea arrantzatzen trebea ez denak, baleari behar baino gehiago sufriarazten dionak ez du hurrengo urterako lizentzia eskuratzen". Iñakik behin baino gehiagotan esaten zigun norvegiarrak gauza batzuetarako nahiko xelebreak direla, baina onartu behar da beste gauza askotarako oso herri aurreratua dela. Beste batean, adibidez, erreka batera joan ginen, izokinek errekan gora egiten dutenean zenbat izokin ibili diren kontatzeko daukaten sistema ikustera. Horrela urtetik urtera dakite zein den izokinien egoera".

Garikoitz, Iñaki eta Jon arrantzan ere ibili ziren: "Ikazkinak arrantzatzen genituen, bakailoa neguko arraina delako. Herritxo bateko portuan Zodiac-a utzi, eta egunean bertan arrantzatutako arrainak garbitzen hasi ginen. Berehala hurbildu zitzaizkigun turistak, arrainak nola garbitzen genituen ikusteko, eta arrainak oparitzen hasi ginen, mordera genituelako. Hurrengo egunean esan zigun emakume batek inoiz jan duen arrain freskoena oparitu geniola".

XABIER URTZELAI



Itsasontzitik bale bati ateratako argazkia.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33      ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**BITTORI**  
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82





## UNAIREN ALDEAN, FREDDY MERKURY AMATEURRA ZEN; GALDETU LOGROÑON BESTELA

Unai eta Oihana zapatuan ezkonduko dira Arrasateko parrokian. Ondoko erretratu argitaratuta, baina, ikusteko dagoena da koadrilakoak bazkarira gonbidatuko dituzten edo ez. Sasoi handia eta solomo gehiago behar dira Unairi egin zioten ezkon aurreko parranda egiteko. Errioxako upeltegi batean bisita egin (bisita baino ez), eta San Mateoak zirela aprobetxatuta STSkoak

Logroñora joan ziren. Eta eurekin, nola ez, Freddy Mercury arrasatearra. Ez dakigu bihar ondo bazkaldu eta gero zein talde ibiliko den dantzaldia girotzen, baina guk ez genuke inor kontratatuko. Unai *show*-a errepikatzearekin, nahiko. Seguru, gainera, koadrilakoak gertu egongo direla Queen taldeko abestiekin laguntzeko. Lagunen partetik, zorionak, bikote!!!



## ERRETRATUAN BAKARRIK IRTEN BAINO, HOBE KONPAINIAN

Horixe da aurtten Komisiñokuei burutik pasa zaiena, eta automobil elegantearen ondoan bakarrik irten baino, Luisitok, Jarrai-k, Arristik eta Txispasek gurago izan zuten erretratu konpainia onean atera. Aitziber Zumalde ere ez dago kexatzeko moduan; mutil-laguna ondoan, koadrila ederrarekin batera atera zioten-eta erretratu. Eta, goiko bi neskatxak bakarrik daude, baina seguru gazte askok gurako luketela konpainia egiten egon. Dena dela, ibil daitezela euren airera, datorren urtean ere Maritxuk emango du-eta aukera norbaitengana arrimatze.



HARDCOREFORMYOSE

Vancouverko proiektu horretan RKL taldeko Joe Raposo eta Good Riddanceko Sean Sellers daude.

## Gaur, Eskoziako folka punkarekin eta parrandarekin batuko dute

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, kontzertu berezia egingo dute 3.60 aretoan. Kanadako Real McKenzies, Bostongo Far from finished eta Arrasateko Never Surrender taldeak izango dira taula gainean, 23:00etan.

Aspaldi honetan 3.60 aretora atzerriko punk, Oi! eta hardcore talde dezente eramaten dabilta. 77ko belaunaldian zeresana izan zuten batzuk eta haien oinordeko beste batzuk, batez ere.

Gaurko kontzertuan, berri, musikari gazte eta veteranoak izango dira, eta jatorri askotariakoak gainera. Gaueko protagonista nagusia Kanadako Real McKenzies taldea izango da. Askoren esanetan, euren musika folk-punk moduan defini daiteke; Eskoziako jatorria daukan folka batetik, eta Ingalaterrako eta gaur egun AEBetan egiten den punka bestetik. Mckenziez hitz gaelikoa da eta haren esanahia da "egun

askotan luzatzen den jai zoroa", hain zuzen ere. Taldeko lagunen esanetan, hori oso definizio aproposa da.

**ESKOZIAKO GONAK, GAITAK ETA PUNKA**  
Vancouverren bizi den eskoziar jatorriko Paul McKenziak 1994an sortu zuen taldea. Ordutik hona dozena erdi disko kaleratu dituzte eta hainbat bira egin dituzte (AEBetan barrena 6 aldiz eta Europan bost aldiz ibili dira), betiere Eskoziako gonak jantzi-ta. Besteak beste, honako taldeekin batera jo dute: Rancid, NOFX, The Briefs, Shane McGowan (The Pogues taldeko abeslaria)...

*Real McKenzies taldearekin, punka, parranda eta Eskoziako kutsua bermatuta daude*

Oso kontzertu ganberroak egiten dituzte, eta kazetari batzuen esanetan talde horren emaitza da "Sex Pistols eta Eskoziako folk izar Robbie Burns bateratzearen parekoa".

Bira honetan luxuzko baxu eta bateria jotzaileak izango dituzte: RKL taldeko Joe Raposo eta Good Riddance taldeko Sean Sellers, hurrenez hurren.

### BOSTONGO PUNKAREN PROMESA

Vancouverko zoro horiekin batera, Far from finished talde promesak esku hartuko du. Bostongoak (AEB) dira eta aspaldian oso kritika onak jaso dituzte. Taberna eta areto txikietan jo ostean, grabazio estudioan Street Dogs talde ezaguneko Rob Guidotti eza-gutu zuten. Far from finished taldera batzea erabaki zuen, eta emaitza askoz onagoa da. Diote-nez, eskola zaharreko punk-rocka eta egungoa batu dituzte.

Arrasateko ordezkariak atsendenik hartzen ez duten Never Surrender izango dira.

## Gaztebilguneak aurkezpena egin zuen martitzenean

I.B.

Gazte Bilgunea gazteriaren baitan eztabaida prozesua irekitzeko eta Euskal Herriak gazteendako behar duen erakundea erakitzeko sortu zuten, hau da, Euskal Herriko Gazte Kontseilua sortzeko.

Euskal Herriko Gazte Kontseilua eraiki gura dute, Euskal Herri osoko gazteen hitza eta erabakia bideratzeko tresna moduan. Gazteria batuko duen eta gazteen gabeziei egokitutako kontseilu ireki, zabal eta parte-hartzailea antolatzea da Gazte Bilgunearen helburua.

Horretarako, Gazte Bilguneak prozesu jakin bat abiatu du eta horren oinarriak honako hauek dira: euskal gazteriaren eskubideen karta eratzea, euskal gazteriaren diagnostia eremu egitea, gazteriaren esku-hartzea eta ekarpenak lortzea. Horrekin guztiarekin batera, Euskal Gazteriaren 1go Bilzarra egin dute.

Dagoeneko Eskubideen Karta eta diagnostiak osatuta dituzte, baina hainbat herritako gazteen esku-hartzea eta ekarpenak

lortu ahal izateko, herriz-herri aurkezpenak egiten dabilta. Ibairean aurkezpen bakarra egin dute, Arrasatekoa hain zuzen ere. Gaztetxean egin zuten martitzen iluntzean, eta harrera ona izan zuen ekimenak.

### GAZTERIAREN ESKUBIDEEN KARTA

Besteak beste, onartu berri duten gazteriaren eskubideen karta aurkeztu zuten. Idatzi mardul horretan hainbat oinarri zehaztu dituzte, une honetan berbagai dituztenak.

Karta horren bitartez gazteek hainbat aldarrikapen egiten dituzte: besteak beste, edozein arrazoi dela medio, gazterik ez baztertea; euskal gazteek bakean eta demokrazian bizitzeko eskubidea izatea; hemengo gazteek kolektibo moduan jarduteko eskubidea izatea; bizitza sozial eta politikoko hainbat esparrutan esku hartu ahal izatea, eta beste batzuk.

Horrez guztiaz gain, euskara, hezkuntza, etxebizitza, aisialdia eta sexualitatea besteak beste, izan zituzten berbagai, pil-pilean dauden gaiak direlako eta gazteei horiek eguneroko bizitzan ardura handia ematen dietelako.

## LABUR

### Txatxilipurdi elkarteak zabaldu du Txikilandian begirale izateko izenematea

Urtero moduan, Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteak Gabonetako Txikilandia jolasparke erraldoia egingo du. Ekimen horrek izugarritzko arrakasta izaten du, baina halako emaitzak lortzeko jende askok lan egin behar izaten du. Txatxilipurdiko arduradunak dagoeneko hasi dira lanean, eta zabaldu dute begirale lanak egingo dituztenendako izenematea. Gabonetako hitzordua urtarriaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango da. Interesatuak Txatxilipurdira (Pablo Uranga) jo beharko dute, curriculuma aurkeztu eta izena ematera.

### Bihar, zapatua, punk-rock, twist eta rock-and-roll kontzertua egingo dute gaztetxean

Aspaldiko partez, punk-rock eta rock-and-roll taldeak entzun ahal izango dira gaztetxean. Horretarako, talde sorta handia eraman-goto dute: rock-and-rola egiten duen Boogie Van, twist eta rock-and-rola egiten duen The 5 Twisters, The Lost Souls (speed rock) eta Lost Girls (punk-rocka), hain zuzen ere. Ikuskizuna 22:00etan izango da eta sarreran 3 euro bakarrik ordaindu beharko dira.

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA

ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA

LOGDAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa / Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

**7505**  
zenbakira



**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

**Himnoak**  
Eibar | EIBAR  
Athletic Club | BILBAO  
Osasuna | OSASUNA  
Real | REAL  
**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA  
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO  
Amore amore (Kandasko bertak) | AMORE  
Bi Minutero (Hertzainak) | BIMINU  
Dub manifest (Farmin Muguruza) | DUB  
Eguztero (Hertzainak) | EGUZTERO  
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR  
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS  
Enamorado de la muerte (Eurythmics) | ENAMORADO  
Etorbizuna (Etsaiak) | ETORKI  
Ezer ez da betiko (Kant) | EZER  
Gora Herria (Nagu Gorriak) | GORA

Hator Bel-Air (Bede Ertxander) | BELAIR  
Haizea (Kortatu) | HAIZEA  
Hegal egiten (Hoxa) | HEGAL  
Ikusi (Dunham Trumet) | IKUSI  
Ilargia (Ken) | KEN  
Inperiumen ate joka (Gaitza) | INPER  
Jokin Urairi Hitzak (Bede Ertxander) | JOKIN  
Kaixo (Kortatu) | KAIXO  
Lau Teillatu (Mela) | ITOIZLAU  
Laztana (Laztana) | LAZTA  
Lotuta egon arren (Kortatu) | LOTUTA  
Loreboa (Kortatu) | LORE  
Marea Gora (Mela) | MAREA  
Musturrek sartunde (Esbu) | MUSTURREK  
Nicaragua (Kortatu) | NICA  
No time for love (Hertzainak) | NOTIME  
Salve (La Polla) | SALVE  
Sarr Sarr (Kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Esbu) | SORGIN  
Txatxo (Zarama) | TXATXO1  
Txus (La Polla) | TXUS  
**Trikitza**  
Bexamele ta pastela (Maizta ta Isari) | BEXAMELE  
Bokespok (Kortatu) | BOKESPOK  
Hik lan eta mik jai (Tapija) | HIK  
Itxas ontzi baten (Kortatu) | ITSAS  
Kupela (Esbu eta Larrainaga) | KUPELA  
Mina galdera (Aitz) | MILAI  
Nirekin (Esbu) | NIREKIN  
Ny Hirahira (Kortatu) | HIRAHIRA  
Txanpon baten truke (Aitz) | TXANPON  
**Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan) | SOROTAN  
Bai euskarari (Pantano) | BAIT  
Bakezaleak (Aitz) | BAKE  
Bizkaia Maite (Bento Larbundi) | BIZKAIA

Eperrak (Aitz) | EPERRAK  
Euskal Herria Euskaraz (Esbu) | EUSKAL  
Euskaldun berraren balada (Esbu) | EUSKALDUN  
Ez da posible (Piper Ordokai) | POSIBLE  
Furra Furra (Esbu) | FURRA  
Galzira noa (Esbu) | GALZIRA  
Gemikako Arbola (Sorotan) | GERNIKAT  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA  
Izarren hautsa (Kortatu) | IZARREN  
Lepoan hartu ta (Pantano) | LEPOAN  
Marmelaren zai (Sorotan) | MARINE  
Nere herriko neska bat maite (Bento Larbundi) | NERE  
Non geratzen den denbora (Mikel Urteaga) | NON  
Oi Ama Euskal Herria (Bento Larbundi) | OIAMA  
Tirakui (Esbu) | TIRA  
Txatxamatxatxatxo (Mikel Urteaga) | TXATXA  
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA  
Zaindu maite duzun hiri (Piper Ordokai) | ZAINDU

**Herrikoia**  
Bagare | BAGARE  
Desde Santurce a Bilbao | DESDE  
Ikusi Mendizaleak | MENDI  
Pimbo-pimbo | PINTXO  
San Simon eta San Judas | SAN  
**Jaietakoak**  
Artillero dale fuego | ARTILLERO  
Marijalia (Kortatu) | JAIJA  
San Fermín | FERMIN  
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL

**JOKOAK (4 sms)**

BOINK  
NEUTRON2  
RALLYDELUXE  
FUTVOLEY  
NOR  
SOBALL

**SOINU ERREALAK (2 sms)**  
Soinu izena | KODEA  
- IRRINTZI | IRRINTZI  
- Txalaparta | TXALAPA

Eskuratzeko modua:  
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA  
**7505** zenbakira  
Prezioa: 3,6 +BEZa

### OHARRAK

- BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintza ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
- BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde emateko orain da eta 40 jatorria bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta emateko deian dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora.  
\* Vodafone: deitu 123-ra. \* Movistar: deitu 902-ra.
- ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
- PERTSONALIZAZIOAK:** Zura neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezazula nahit baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.



Opel, idela berriak. Auto hobeak.

# Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 star" gareneko kalifikazioa pertsona nagusien laguntzarako.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatuzeko.

[www.nuevozafira.com.es](http://www.nuevozafira.com.es)

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

**GMAC FINANCIAL SERVICES**

## Giauto

Olaso 25. Elgoibar  
Otaola etorbidea 29. Eibar  
Olabarrena auzoa z/g. Bergara  
San Andres auzoa 10D. Arrasate  
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria  
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

## EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen iturri txiki eta berezi hori?  
Arrastoa: hortik gertu, aparkaleku ugari egiten dabilta.

MIKEL LUPIANEZ

### Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Koipesol olio**  
litroko botila

**1,19€** 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

#### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**ANDER UNTZUETA** arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ander!  
Galderen erantzun zuzena:  
Zaldibar inguruan.

## ERRETRATUZAHARRA

### 25 urte elkarren lagun izaten

**A**ntzina-antzinako argazkietara jo barik, oraingo astean, ohikoa baino argazki "berriagoa" aukeratu dugu. Batetik, sinpatikoa eta polita delako eta bestetik, bestetan argitaratzen ditugun argazki zaharretan ia inor ezagutzen ez duten horiek, oraingo honetan, ezagun bat baino gehiago ikusiko dutelako, duda barik.

Pista bat ematearren, esango dugu koadrila horren izena *Aizpun Bila* dela. Kontatu digute datorren urtean koadrila horren 25. urteurrena izango dela: "Hasi ginen ateratzen 1981eko Kilometroetan. Hasieran zazpi-zortzi bat ginen eta poliki-poliki lagun gehiago elkartzen joan zitzagun". Halaber, kontatu digute Iturriotz taberna dutela "egoitza" nagusi eta hantxe elkartzen jarraitzen dutela.

Argazkia gaur egungo Goizaldeko terrazan dago aterata. Baina argazkia atera zutenean, leku hartan txosnak ipintzen zituzten. Argazkia atera zutenean, Amnistiaren Aldeko Batzordearen txosna inguruan zebiltzan gure



lagunak: "Txandaren bat egin behar genuela uste dut".

Argazkiko gazteak guztiz identifikatu barik izanez gero, hementxe dituzue haien izen-abizenak, eta gehienetan goitizenak. Goian, ezkerretik eskumara: Diego Martiartu *Dixu*,

Gaizka Bergartxe *Potolo*, Alberto Eguskitza *Egus*, Asier Arizabaleta *Arixa*, Igor Arrieta *Bigotes* eta Iban Arroiabe.

Eta behean, ezkerretik eskumara, honako hauek azaltzen dira: Asier Errasti *Ganbelu*, Jon Ozaeta *Ozzi*,

Andoni Epelde *Antxon* eta Igor Uribe-salgo *Basurde*.

**Argazkia:** Arrasate Press.  
**Informazioa:** Asier Arizabaleta *Arixa*.  
**Urtea:** 90eko hamarkada.

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 ..... 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B. .... 943 77 03 96

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. .... 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a

396. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

## Ordenantza fiskalen igoera onartu dute: ura %7,67 eta zaborra %17,62

MIRARI ALTUBE

Datorren urteko ordenantza fiskalen edo udal-zergen igoera onartu zuen udalbatzak astelehenean. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu gehienek KPIk zehaztutako igoera izango dute. Igoerarik nabarmenenak urarena eta zaborrena izango dira.

Astelehenean onartu zuen udalbatzak 2006ko udal-zergen igoera. Gehienek KPIren igoera izango dute.

### URA ETA ZABORRA

Ondasun higiezin eta automobilen gaineko zergak, etxeetan egiten diren lantxoaren gainekoak, Udaleko zerbitzuak erabiltzearen ordaindu beharrekoak eta beste horrenbeste zergek KPIren igoera izango dute 2006an. Pausoka Haur Eskola eta Urats-Gain zaharren egoitzaren prezioak ere zehaztu zituzten. Udalak ematen dituen zerbitzu bik izango dute igoerarik handienak; urak eta zaborrak. Ura %7,67 igoko da gutxienezko kontsumoaren kasuan, eta horri KPI gaineratuko diote kontsumoa handiago bada. Zaborra, ostera, %17,62 igoko da. Sasietako zabortegira eramateko kostuak ordaintzeko igoera da, eta hilero 76 zentimo gehiago ordainduko ditu herritarrak.

Zergen igoerarekin batera hoberi fiskalak onartu zituzten. Aldaketarik handiena herriko komertzio txikiek eraberritze lanengatik ordaindu beharreko zergak izango du: %95eko beherapena.



Zaborraren igoera handia iruditu arren, garraio kostuak ordaintzeko da.

ARTXIBOA

*Sasietako zabortegira eramateko kostuak ordaintzeko da zaborraren igoera*

### FORU ALDUNDIRAKO PROPOSAMENA

Errekaren beste aldean egingo dituzten etxebizitzaren gaineko aldaketak ere onartu zituen udalbatzak astelehenean. Izan ere, Foru Aldundiak ezetza eman zion abuztuan 2-b sektoreko plan partzialari, Eusko Jaurlaritzak

*Herriko komertzio txikien eraberritze lanek %95eko beherapena izango dute udal-zergan*

hutsuneak ikusi zizkiolako Ibai eta Erreken Ertzen Antolamenduko Sektorerako Lurralde Planean. Eskatutako aldaketak egin ditu Udalak Bruesa enpresa sustatzailearekin adostuta, eta orain, Foru Aldundira bidaliko du txostena behin betiko onartzeko.

## Irteerak eta ikastaroak gaztelekuko egitarauan

M.A.

Urrirako egitaraua egin du gaztelekua. Irteerak, ikastaroak eta mahai jolasen txapelketak egingo dituzte beste ekintza batzuekin batera. Gaur, egubakoitza, sexologiaren gaineko tailerra egingo dute joko bitartez, eta bihar, mendi bizikletarekin aterako dira inguruak ezagutzera.

Joan zen egubakoitzean, urriak 7, zabaldu zuten gaztelekua Irarlabarri plazan. 12 eta 17 urte arteko gazteen topaleku izan gura du eta ekintzaz betetako egitaraua antolatu dute arduradunek.

### ERA GUZTIETAKO EKINTZAK

Gaur, egubakoitza, sexologia tailerra ematera etorriko da aditu


bat. Jokoen bitartez landuko dute gaia eta erabat entretengarria izango da tailerra. Bihar, ostera, mendi bizikleta irteera egingo dute herriko bazterrak ezagutzeko, eta domekarako bideo emanaldia antolatu dute.

Hurrengo egubakoitz eta zapatuan, urriak 21 eta 22, mahai jolasen txapelketa egingo dute: ping-ponga, diana eta mahai futbola. Sariak jasoko dituzte, gainera, txapeldunek. Domekarako, hilak 23, ostera, multiabentura irteera antolatu dute. Burgosera izango da irteera eta hainbat kirol egiteko aukera izango dute gazteek. Joan gura izanez gero aurrez eman behar da izena gaztelekuan bertan. Hilabetea bukatzeko, perkusio ikastaroa izango dute hilaren 28an eta 29an; 30ean, ostera, eskularen tailerra.



12 eta 17 urte arteko gazte ugari elkartu zen joan zen egubakoitzeko ekitaldian.

propaganda  
kartelak  
kartak  
jai egitarauak  
pegatinak  
liburuak  
etiketak  
txartelak  
errekordatorioak  
gonbidapenak  
errebistak  
inprimakiak



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

1979urtetik  
zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 15  
FRANLE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 16  
FRANLE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

**TELEFONOAK**

**OROKORRAK**

- Almen..... 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA..... 943 79 86 21
- Fara..... 943 77 18 54
- Basobio..... 943 77 09 81
- Euskaltegia..... 943 79 21 68
- Gizarte laguntzaila..... 943 71 18 62
- Industrialdia..... 943 79 62 80
- Instituta..... 943 79 79 00
- Kirol etxea..... 943 71 26 28
- Kultura etxea..... 943 71 10 27
- Gazteria saila..... 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola..... 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI..... 943 79 57 40
- KZGunea..... 934 79 94 44
- Liburutegia..... 943 71 18 62
- Loramendi EE..... 943 77 09 70
- Ludoteka..... 943 79 05 81
- Mankomunitatea..... 943 79 30 90
- Muruko ME..... 943 79 93 74
- Musika Eskola..... 943 79 36 50
- Osasun etxea..... 943 71 19 59
- Otalora..... 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa)..... 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola..... 943 77 03 77
- Postetxea..... 943 79 28 31
- Basabeazpi ikastola..... 943 71 21 18
- Taxi geltokia..... 943 77 12 64
- Udal Bulegoak..... 943 71 18 62
- Udaltzaingoa..... 943 71 18 63
- Utats Gain..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**

Arasate..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

- SOS Delak..... 112
- Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00
- Ertzaintza..... 943 79 71 99
- Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
- Larrialdia..... 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati)..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE**

PARROKIA  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**

Domeketan: 09:00  
Zapatutan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**LARRINO**

Domeketan: 12:30.

**MENDIOLA**

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**

Domeketan: 11:30.

**Beste herrialde batzuetako jakiak eta dantzak domekan**

M.A.

**Extremadura, Gaztela eta Leon, Galizia eta Errioxako ordezkariak elkartuko dira herriko plazan, domekan. Bederatzigarren aldiz antolatu du Gastronomía eta Folklore jaia KIUBek.**

Herriko plaza bete egingo da domekan IX. Gastronomía eta Folklore jaia ospatzeko. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak antolatzen du, eta bost herrialdetako jakiak dastagai eta dantzak ikusgai izango dira.

**JATEKOAK ETA DANTZAK**

Donostiatik etorriko diren Galiziako Etxeko kideek olagarroa eta albariño ardoa eskainiko dizkiete aretxabaletarrei. Laudiotik urtero etortzen den San Fernando taldeak Gaztela eta Leongo jaki goxoenak ekarriko ditu. Logroñoako Arali Elkartek ere jarriko du postua herriko plazan, eta La Rondaya Logroñesa taldearen eskutik Errioxako jotarik dotoreenak entzungo ditugu. Arrasatetik Corazon de Encina elkarte hurreratu du Extremadurako txitxi-burruntziak, urdaiazpikoa eta erroskillak eskaintzera; eta Euskal Herria Aretxabaletako Aratz atzeratuen elkarteak ordezkatu du. Jatekoa bakarrik ez, dantza erakustaldia ere egingo dituzte:10:00ak

*La Rondaya  
Logroñesa taldeak  
Errioxako jotarik  
dotoreenak abestuko  
ditu*

*Domekan aurkeztu  
behar dira patxaran  
botilak, eta irabazleek  
garaikurra eta dirua  
jasoko dituzte*

inguruan kalejira eta ondoren plazan.

**XI. PATXARAN LEHIAKETA**

Patxaran lehiaketa ere egingo dute domekan, XI.a hain zuzen. Egunean bertan, 11:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dituzte patxaran botilak, eta arratsaldean emango dute irabazleen berri epaimahaiko kideek: garaikurra eta dirua jasoko dute. Irabazleen patxaranak antolatzailen eskuetan geratuko dira, eta gainerakoak herritarrek probatzeko utziko dituzte.



ARTXIBOA

Olagarroa, urdaiazpikoa, txorizoak, erroskillak... Egongo da bai zer jan eta edan.

**LABUR**

**'Henry Bengoa inbentarium' bakarrizketa eskainiko du Kandido Urangak egunean**

Datorren egunean, urriak 20, *Henry Bengoa inbentarium* bakarrizketa eskainiko du Kandido Uranga aktoreak. Kultur Errotako ekitaldia da eta udaletxe zaharrean izango da, 19:00etan.

Bestalde, Debagune datorren urteko egutegia egitekotan dabil. Bertan ofizio zaharren gaineko erretratuak argitaratuko ditu eta Aretxabaletako argazki bi agertuko dira. Loramendi EEk dauka argazkiok lortzeko ardura eta herritarren laguntza behar du. Hor-taz, argazkiren bat izanez gero Loramendi EEren lokalera ekarri.



**Itxi egingo dute Urkulu inguruko ibilbidea**

Urkuluko lanak bukatutzat eman ditu Foru Aldundiak. Urtegi inguruko ibilbide osoa asfaltatu egin du, bazterrak garbitu eta arekak konpondu, eta bide batez, bankuak eta zaka-rrontziak jarri ditu. Orain, Udalak itxi egingo du ibilbidea giltzadun piboteekin automobilak ez daitezen pasa. /M.A.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

*Karlos*  
*Harategia*  
Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
20550 ARETXABALETA

*MAITE*  
ILE APAINDEGIA  
Sarasate 1 behea • Tel.: 943 79 59 05 • ARETXABALETA

Zoru aukera zabala

**K21**  
**AZKARATE AROZTEGIA**  
Telleria 19, B-0-2 B-0-3 BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 - 610 884 020  
Tarimak  
Parket flotatzaileak,  
bernizatuak  
eta estratifikatuak

ELKARRIZKETA

FRAN MIGUEL/XAKE JOKALARIA

*“Bost gaude berdinduta, eta azken jardunaldian erabakiko da txapelketa”*

M.A.

**A**rrasateko Xake Txapelketa jokatzeko dabilta Fran Miguel eta Aitor Alcaide aretxabaletarrak. Beste lau jokalarirekin berdinduta dago lehenengo postuan Fran, eta gaur, egubakoitza, azken jardunaldia daukate.

**Zela doa Arrasateko Xake Txapelketa?**

Lau jokalarari ibili gara buruan azken jardunaldi arte: Iñigo Argandoña, Miguel Navarro, Luis Olaizola eta laurok; eta joan zen astean arrasatear bat, Txema Hernando, ere lehenengo postuan jarri zen beste laurokin berdinduta. Uste bezala joan da txapelketa, faboritok irabazi egin ditugu partidak eta elkarren artean jokaturakoan berdindu egin dugu.

**Berezitasunik badu txapelketak?**

Ez dauka apartekorik. Suitzar sistema darabilgu: irabaziz gero puntu bat jasotzen dugu eta berdinduz gero erdi. Eta gero antzeko puntuak ditugunon artean jokatzeko ditugu partidak. Sistema honek maila bereko jokalariek elkartzen gaitu.

**Jokalariek gehienok ezagutuko duzue elkar, ezta?**

Bai, xakearen inguruan gabiltzan guztiok eza gutzen dugu elkar. Donostiako hiru lagun daude, oso



onak hirurak; Gasteiztik, Bizkaitik eta Nafarroatik ere etorri dira.

**Zein izango da zure aurkaria egubakoitzean?**

Ez dakit ziur, baina Miguel Navarro nafarra uste dut.

**Eta bost onenok berdinduz gero zein izango da txapelduna?**

Berdinketa egonez gero bucholtz sistemarekin erabakiko dute, hau da, norberak izan dituen

aurkarien puntuak batu eta gehien dituen txapelduna.

**Zela prestatzen zara zu?**

Lehen liburuetatik ikasten nuen eta orain baino askoz gehiago; lana dela, bizimodua dela, utzita daukat apur bat. Orain, gainera, Interneten zure aurkarien partida guztiak aurki ditzakezu. Globalizazioak eragin handia izan du xakean.

LABUR

**Kadeteen lehenengo mailako taldea aurrera doa partidurik galdu barik eta gol askorekin**

Ezin hobeto jarraitzen du kadeteen lehenengo mailako taldeak. Mutrikuarrei lau gol sartu zizkieten joan zen aste bukaeran, eta poliki-poliki aurrera doa taldea sailkapeneko lehenengo postuari utsita 12 punturekin. Bigarren dago Mondra, 10 punturekin eta hirugarren Elgoibar 9ekin. Hain zuzen, Elgoibar izango du aurkari domekan Aretxabaleta Kirol Elkarte taldeak.

Kadeteen bigarren mailako taldeak ere ez zuen partidu makala egin aurreko aste bukaeran: 14 gol sartu zizkion Sorluzeri. Hala, hirugarren dago sailkapenean, 7 punturekin, eta lehenengo dagoen Ilintxak bakarrik garaitu du. Domekan, urriak 16, Ikasberri taldea izango du aurrez aurre Ibarra futbol zelaian.

**Gipuzkoako Txapelketako hiru partidu jokatu dituzte gaur, egubakoitza, 19:00etan**

Hala-hola dabilta herriko pilotariak Gipuzkoako Txapelketan. Joan zen domekan Errasti anaiak galdu egin zuten Añorgako bikotearen aurka, eta Akizu eta Gardoki bikoteak ere galdu egin zuten. Uriarren eta Perez de Labeagak, ostera, irabazi egin zuten, aurkakoak ez zirelako agertu.

Gaur, egubakoitza, hiru partidu jokatu dituzte Iturrigorri frontoian 19:00etan hasita: Akizu eta Gardoki kadeteek hernaniarrak izango dituzte aurrez aurre; Uriarte eta Oionek, zegamarrak; eta Lasagabaster eta Altzolak ere hernaniarrak. Errasti anaiak, ostera, Usurbilera joango dira domeka goizean.

PARTIDUAK

EMAITZAK

FUTBOLA

**UDA-Real Union**  
Preferentea.  
Domeka. 16: 30. Ibarra.  
**UDA-Zestoa**  
Bigarren mailako erregionalak.  
Domeka. Ibarra.

PILOTA

**Aretxab. - Hernani**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**Aretxab. - Zegama**  
Seniorrak.  
Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

FUTBOLA

**UDA 2 Pasajes 2**  
Preferentea.  
**Gazteak 4 UDA 4**  
Bigarren mailako erregionala.  
**Urola 1 UDA/Arizm. 0**  
Ohorezko gazteak.  
**UDA/Arizm. 1 Texas 2**  
Lehen mailako gazteak.  
**UDA/Arizm. 4 Mutriko 0**  
Lehen mailako kadeteak.  
**Soraluze 1 UDA/Arizm. 14**  
Bigarren mailako kadeteak.

**UDA/Arizm. 1 Tolosa 0**  
Infantil txikiak.  
**Lagun Onak 0 UDA/Arizm. 2**  
Ohorezko infantilak.  
**UDA/Arizm. 0 Mondra 4**  
Emakumezkoen liga (seniorrak).  
**UDA/Arizm. 6 Elgoibar 0**  
Emakumezkoen liga (kadeteak).  
**Tolargi 9 UDA 2**  
Areto futbolak.

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Angelines AUTOZERBITZUA**

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Aretz taberna**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**ARQUERO CONSTRULAN S.L.**

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**J.J. IRURE**

URAGA KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

**JAUSSORO OSTATUA**

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**SANER**

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA

943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

**BENGOA URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**Jon Diaz**

Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



**ATREBENTZIAEZPADA/ Fango zara Gastronomía eta Folklore jaire? Ze pentsetan jatzu halako jaixek?**



**NURIA FDEZ. DE ARRIABE**  
Langillie



**MIKEL CABERO**  
Langillie



**AXUN ELKOROBARRUTIA**  
Jubilaue



**BENITO DOMAICA**  
Jubilaue



**JUANITA ETXEBARRIETA**  
Jubilaue



**JULIAN RUBIO**  
Jubilaue

Ez dakit, egualdixek lagunketan badau Nafarroa Oñe-zera fango naz seguru asko. Danondako jaixek daue, eta ondo dau herritarrok harremanetan jartie esparru batzuetan.

Ez, domekan ezin dot. Beste kultura batzuk ezauketan emutie eta ezauketie ondo dau, baiñe beti be pasau barik. Eurek ez daue ahaztu biher Euskal Herrixen bizi diela.

Ez, ni ez naz fango seguru asko, baiñe ondo pentsetan jat. Jaixek beti dauz ondo, eta zenbat eta ekitaldi gehixau egon herrixen, hobeto. Dantzek eta musikiek animau egingo daue domekie.

Bai, asko gustetan jat, eta fango naz. Neu be kanpotik etorri nitzen eta 50 urte daroiet hemen. Bertako jakixek gustetan jat probetie, eta pulpue gaztiendako dala pentsetan dot.

Bai, urtero faten naz eta oso gustora, gaiñera. Oso ondo pentsetan jat halako jaixek egittie, bestela nau-sixondako ez dau ezer. Biher dou zeozer herrixen; lehen, gauza gehixau euzen.

Eskoriatzarra naz eta iguel hurreratuko naz domekan Aretxabaletako plazara, musikie eta jakixek bixek gustetan jat-eta asko. Ondo pentsetan jat ferixiek eta antzeko jaixek egittie.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK ZIKIN ETA ZAINDU BEHARREAN** Bukatu dituzte Urkuluko lanak. Foru Aldundiak egin ditu: asfaltatu ibilbide guztia, bankuak jarri eta aparkalekuak zehaztu. Orain, baina, zaindu egin behar dugu Urkulu. Zikinkeriak han eta hemen uzten ditugu; zakarrontzi gutxi daude, baina erabili egin behar dira. Bestalde, bazterrak txukun eduki behar dira, sasiak moztuta, esaterako. / M.A.

**ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN**

**Gazteak hezteko etxea parrokiak lagunduta**

San Luis Gonzaga etxea egin zuten Venezuelen Aretxabaletako parrokiaren laguntzarekin. Arriskuan eta pobrezian bizi diren gazteak hezteko etxea da, eta hilero 100 gaztek hartzen dituzte heziketa eskolak. Proiektuaren %45 ordaindu zuen parrokiak eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak.



**ASTEKODATUA**

**76**

**ZENTIMO GEHIAGO BALIOKO DU ZABORRAK HILERO**

Tasen igoera onartu du Udalak hurrengo urterako. Zaborrak %17,62ko igoera izango du, hau da, hilero 76 zentimo gehiago ordaindu beharko dute herritarrek zaborra Sasietara eramateko.

**BESTEKEESANA**

**“Nire helburua da honetaz bizi ahal izatea, edo behintzat salatzea horretan, eta badakit orain,**

**hilabete batzuetan behintzat, lortu dudala. Nire helburua ez zen Goenkalen agertzea, baina kristoren lana da; eta gainera, Euskal Herri mailan erakusleiho, edo deitu gura duzun moduan, baina jendeak ezagutzeko modu bat da. Alde horretatik bai nago pozik.**

**Ez dut gura obsesionatzerik, baina badakit modu oso on bat dela nik gura dudana lanbidean aurrera jarraitzeko. Gero igual ez dauka zertan izan horrela eta hemendik urtebetara nago ez dakit non beste lan bat egiten... Baina behintzat aukera hori eduki dut, momentuz hor nago eta aprobetxatu egin behar dut.**

**KEPA ERRASTI**  
Arrasate Irratia/05-10-06

**HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik**



*Etorkin ala atzerritar?*

**T**eorian, bi hitzok berdina esan nahi dutela ematen du, beste Herri batetik gure Herrira datorren pertsona. Baina praktikan zein ezberdinak diren... edo zein ezberdin erabiltzen ditugun. Etorkinak, normalean, beltzaranei deitzen zaie eta atzerritar, zuriak edo zuriagoak direnei. Baina hau ez da azalaren kolorearen kontua, poltsikoan dakartzaten euro, kopuruarena baizik. Etorkinak, euro bat gabe etorritako pertsoneri deitzen zaie eta atzerritarak aldiz, poltsikoan euro dezente dakartzatenei, bost axola kolorea poltsikoa beteta dagoenean.

Joan zen egunean, Madrileko gizon batekin hitz egiten, Madrilen ostalaritza arloan etorkin asko zeudela eta gainera ez zirela batere profesional onak beren lanean komentatzen zuten. Gero eta gehiago zegoela eta honen ondorioz ostalaritzaren

lanbidea izena galtzen zebilela. Nik harrituta begiratzen nion, eta esan nion ea horren errua norena zen, lau erogatik esplotatuta eta prestakuntza gabeko etorkin/atzerritarrena ala jabearena hau gertatzen uztearren. Ez dugu ahaztu behar, gaur egun dauzkaten lanak, bertakook nahi ez ditugunak direla eta lau euroren truke eginikoak gainera.

Melillako azken irudiak. Beren Herrietan bizitzeko gutxiengoa aurkitzen ez duten bitartean, etorkizun hobia eman omen

diezaieketen Herrietara etorriko dira, eta normala da hau egitea, nik ere egingo nuke. Ez du balio ona datozenean kexatzea, beren Herrien garapenean lagundu behar zaie, denok eduki behar dugulako norberaren Herrian duintasunez bizitzeko eskubidea eta ez hona heltzen direnean kexatu; beno, hori heltzeko zortea edukitzen dutenak, beste asko eta asko bidean gelditzen baitira.

**“Ez du balio ona datozenean kexatzea beren Herrien garapenean lagundu behar zaie”**

# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a / 226. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Bi hotel zabalduko dituzte udalerrian: bata Torrebason eta bestea erdialdean

IKER BARANDIARAN

Marka handia Eskoriatzarena: ostatu eskaintzarik ez izatetik bi hotel izatera, hain zuzen. Torrebason egiten dabiltzana, Mendigoia, urtea bukatu aurretik inauguratuko dute. Eta Azkoaga etxea ere hotel bihurtu gura dute. Hala, aurten hasi gura dituzte lanak.

Aspaldi hasi ziren Torrebaso inguruan Mendigoia hotela eraikitzen, eta dagoeneko gauza gutxi falta dira lan guztia bukatzeko. Arduradunek ez dute data zehatzik eman gura, baina ziurtatu digute urtea bukatu aurretik hotela zabalik egongo dela. "Logelen arteko banaketa eginda dago, batez ere altzariak jartzea, eta baxuan jarriko dugun sukaldia bukatzea falta zaigu", azaldu zigun hoteleko arduradun Azucena Suengasek.

### 85 LOGELA, HORIETAKO BI SUITEAK

Hotelak 85 logela izango ditu, eta horietako bi suiteak izango dira. Aditza eman digutenez, guztiak izango dute aire girotua eta moder-noak izango dira.

Hotelak 300 lagunendako jan-gela-aretoa izango du, enpresek erabil dezaten edo ospakizun bereziak egin ahal izateko. Eguneko



Torrebason, laster, Mendigoia hotela inauguratuko dute; eta Azkoaga etxean, hotel txiki bat egiteko proiektua dute.



menuak emateko asmoa dute, eta bestelako janak ere emango dituzte. Horrez gain, *paddle*-ean jokatzekeo pistak jarri gura dituzte, besteak beste. Hotelak 20 autoren-dako aparkalekuak izango ditu, eta industrialdeko plazak ere erabiliko dituzte.

Arduradunek esan digute ikusi zutela ibarrean kooperatibak

*Torrebasoko  
Mendigoia hotelak  
85 logela, areto  
handi bat eta  
jaketxea izango ditu*

erakartzen duen jende guztia-  
rendako eskaintza txikiegia dago-  
ela. Horrez gainera, uste dute  
Eskoriatza oso leku estrategiko-  
an dagoela eta Euskal Herria bis-  
tatu gura duten turistek Deba-  
goiena ezagutu eta hemen ibilal-  
diak egin ditzaketela.

Mendigoia arduradunak  
Udalarekin harremanetan jarri

ziren, Eskoriatzako eta ibarreko  
jendea kontratatu gura dutelako.  
Udaletxean curriculumak batu  
zituzten eta oso harrera ona izan  
zuen. 200 bat eskaera jaso zituz-  
ten, eta dagoeneko egin dute lehe-  
nengo aukeraketa. "Hotela abian  
jartzeko 20 bat lagunek osatuta-  
ko pertsona beharko dugu, eta  
%95 Debagoienekoa izango dira",  
azpimarratu zuten.

### AZKOAGA ETXEA HOTEL BIHURTUKO DUTE

Azkoaga tabako-dendako ardu-  
radun Vicente Azkoagak hotela  
jarri gura du familiaren etxean.  
"1999an hasi ginen aukera hori  
aztertzen, eta dagoeneko proie-  
tua ia bukatuta daukagu".

Hotel txikia izango da. Segu-  
ruenik 15 bat logela izango ditu,  
eta eraikinaren estruktura, fatxa-  
da eta behatokia mantendu egin  
gura dituzte. Izan ere, eraikina-  
ren zati nagusia XIX. mende  
hasierakoa da, eta bestea XX.  
mendearen hasierakoa. "Fami-  
liak eraikina mantentzeko modu  
bakarretakoa zen hotela bihur-  
tzea, eta horregatik egin dugu.  
Hala ere, saiatuko gara hotel  
kuttuna egiten, txikia eta polita".

### TABAKO-DENDA JOSE ARANARA

Lanak hasi aurretik, astean, taba-  
ko-denda Jose Arana kaleko 9.era  
eramango dute.

## Gaur, egubakoitza, kontzertua egingo dute Ibarraundin

I.B.

Gaur, egubakoitza, hari-  
laukote batek kontzertua  
egingo du Ibarraundin,  
22:00etan. Besteak beste,  
Lertxundi, Aranburu, Mozart,  
Bach eta Hendelen piezak  
joko dituzte.

Azkenaldian Ibarraundin gero  
eta gauza gehiago antolatzen  
dituzte. Gaur, egubakoitza,  
Arrasateko hari-laukote batek

emanaldia egingo du. Xabier  
Elkorobarrutia biolontxelo  
jotzaileak eta Amaia Artza-  
mendi, Amaia Garro eta  
Domentx Uzinek, hirurak biolin  
jotzaileak, osatzen dute taldea.  
Gaur egun, horietako hiru musi-  
ka irakasleak dira.

Orain dela 15 bat urte sortu  
zuten taldea musika ikasleak  
zirenean eta Juanito Artza-  
mendik zuzendutako orkestra  
sinfonikoan bat egin zutenean.  
Orditik hona ehunka emanal-

di egin dituzte: Gasteizen,  
Donostian, ibarrean... Ekitaldi  
ofizialetan, ezkontzetan...

### MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLE

Taldeko arduradun Amaia Artza-  
mendi Eskoriatzako musika esko-  
lako irakasle da, besteak beste.

Ordubete inguruko emanal-  
dian, euskal kantak (Benito Lert-  
xundi, Luis Aranburu...), klasi-  
koak (Vivaldi, Mozart, Bach...),  
barrokoak (Hendel) eta bestela-  
koak joko dituzte.



Argazkian, Domentx Uzin eta Amaia Arzamendi Arrasateko eskolako orkestrarekin.

BIZIGUNE PROGRAMAREN LEHENENGO PAUSOAK EMAN DITUZTE

# Etxebizitza hutsak errentan jartzeko erraztasunak abiarazita

IKER BARANDIARAN

Iaz, Udalak eta Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Bizigune programaren gaineko hitzarmena egin zuten. Herrian hutsik dauden etxebizitzak errentan jartzeko ekimen berezia abian jartzea erabaki zuten. Jaurlaritzak dirulaguntzak bideratu, eta Udalak herritarrei zerbitzu berezia eskaintzea erabaki zuten.

Hitzarmena sinatu baino lehenago, Udalak ikerketa bat egin zuten aztertzeke herrian zenbat etxebizitza dauden hutsik. 50 bat etxebizitza zenbatu zituzten. Jaurlaritzak Udalaren ikerketa baliatu zuten bere datu baserako.


### ZERBITZUAREN BERRI, ETXEZ ETXE

Lehenik eta behin, Udalak herritarrei aditzera eman die Bizigune programak zer abantaila eskaintzen dien. Horretarako, astean horren gaineko eskuorriak banatu dituzte etxez etxe.

*Interesatuiei arreta egingo diete eguaztenetan, 12:00etatik 13:30era, udaletxean*

Programa horren bitartez, etxebizitza hutsik daukaten eta errentan jartzen duten lagunek hainbat abantaila izango dituzte: Jaurlaritza arduratuko da hileko errenta jaso dezaten ziurtatzen, etxebizitza zaintzen, etxebizitza berritzeko interes bako dirulaguntzak ematen, eta etxebizitzaren alokatzea kudeatzen.

**ERRENTA DUINA ORDAINTZEKO AUKERA**  
Horrez gain, etxebizitza errentan hartu gura dutenek duten diru sarreraren arabera errenta ordaindu beharko dute, eta Etxe-



Udalak egindako ikerketaren arabera, herrian 50 bat etxebizitza daude hutsik.

bideko erregistroan izena emanda izan. Baldintzak honako hauek dira: Etxebiden izena ematea, etxebizitza errentan hartu baino 2 urte lehenago jabetzan etxebizitzarik ez izatea, EAeko

errodan izena emanda urtebetez egotea, eta diru sarrerak 3.000 euro eta 21.100 euro bitartekoak izatea. Interesatuak jo eguaztenetan udaletxera edo deitu 943 37 61 89 telefono zenbakira.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Antoki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiztaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

## OHARRAK

### ARETO FUTBOLA ETA SASKIBALOI

Bihar, zapatua, ohorezko ligako areto futbol taldeak ADC Basoiloak taldearen kontra jokatuko du, 16:00etan. Eta 2. mailako saskibalo taldeak Colegio Basauriren kontra jokatuko du, 18:00etan.

### PERRETXIKOEN GAIKEKO JARDUNALDI

Luis Ezeiza eskolako guraso elkarteak jardunaldiak antolatu ditu. Bihar, zapatua, mendi irteera egingo dute perretxikoak batzeko. 09:00etan egin dute hitzordua eskolan. Eta domeka goizean perretxiko erakusketa eta dastatzea egingo dute plazan.

### PUNK-OI! KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute gaztetzan. Arrasateko Enboskada eta Never Surrender punk-Oi! taldeak izango dira taula gainean. 22:00etan izango da, eta bide batez erdibana kaleratu berri duten diskoa aurkeztuko dute.



### Musika taldeen CDa prestatzen

Herriko hiru musika taldek eman dute izena CDA grabatzeko: Lukas Prest, Klineks eta Arianrod (argazkian). Udaleko Gazte Sailak erabaki du talde bakoitzak lau kantu grabatu eta hamabi abestiko CDA kaleratzea. Disko horren 1.000 kopia egingo dituzte, eta doan banatzeko asmoa dute. Hori aurtengo abenduan edo 2006ko urtarriean izango dela eman dute aditzera. Hiru taldeok Intxaurtxuetako etxabeetan entseatzeko dute.

Hala, taldeak dagoeneko hasi dira Arrasateko Shot! grabazio estudioan kantuak grabatzen, eta esan beharra dago oso gustura daudela Udalaren ekimenarekin. /I.B.

## LABUR


### Perkusio eta funky ikastaroak antolatu ditu Udalak

Martitzenean, hilaren 18an, eguaztenean eta eguenean perkusio ikastaroa egingo dute 17:00etatik 20:00etara. Aintzira Gorosabel izango da irakaslea eta Udaleko Gazte Sailak antolatu du. Gehienez 15 lagunek esku hartu ahal izango dute, eta eskatu dute etxean instrumenturik daukanak ikastarora eramateko. 6 euro ordaindu beharko dira.

Horrez gain, iragarri dute azaroaren 12an, 19an eta 26an funky ikastaroa egingo dutela. Horren matrikula ere 6 eurokoa izango da. Izena emateko, jo Gazteria Zerbitzura martitzen eta eguenean.

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure Zerbitzura



**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastafadui suzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



# Txirritola

ARAMAIO / Barikya / 2005eko urriaren 14a / 167. zenbakia

KOORDINATZAILA: Ubane Madera • Otorla Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Erretiratuaren Eguneko bazkarirako izena eman behar

UBANE MADERA

Datorren urriaren 29an egingo duten Erretiratuaren Eguneko bazkarirako txartelak astelehenean, hilak 17, ipiniko dituzte salgai. Udaltik abisatu digute urriaren 24ra arte dagoela txartelak erosteko. Iazko prezio bera izango dute: sei euro.

Hiru lekutan eskura daitezke txartelak: auzo alkateei erosita, Vital Kutxan erosita edo Euskadiko Kutxan erosita. Bazkaria kiroldegian izango da. Berez 295 erretiratu daude Aramaion, eta Udalak jakinarazi digu Erretiratuaren Eguneko gonbidapena eta egitaraua erretiratu guztiei bidaliko dizkiela. Baina beste urte batzuetako datuak ikusita,

200 inguruk parte hartuko dute bazkarian.

Horrez gainera, menua zein den jakinarazi digu Udalak: zizka-mizkak, arrain-zopa, biribila saltsan, tarta, kafea eta purua.

### OPARIAK ETA ZOZKETAK

Bestalde, ohi duten moduan, emakumezko zein gizonezko nagusienei omenalditxoak egingo diete bazkari horretan.

Horrez gainera, Vital Kutxak eta Euskadiko Kutxak ematen dituen opariak zozketatu egingo dituzte bazkaltzen izango diren lagunen artean. Baita Benidormerako bidaia bat ere. Era berean, bazkalostean dantzalditxoak egingo dute.

### AZOKAN PARTE HARTZEKO DEIA

Bestalde, Erretiratuaren Egunean egiten duten azokan parte hartzeko dei berezia egin die Udalak herritarrei. Etxean edo eskuz egindako edozein produktu, artisauntzakoak, baserrikoak... ipin daitezke salgai. Udalak jakinarazi digu Udalak berak ipiniko diela herritarrei azokarako mahaia eta beharrezkoa duten azpiegitura guztia.

Interesa duenak Udalean eman beharko du izena ahalik eta lasterren.



ARAMAIOKO UDALA

Iaz erretiratu mordoak parte hartu zuen kiroldegiko bazkarian.



## Olioak eraman ostean, ontziak bueltan

Mertxe Mondragon alkateak abisu bat eman digu herritarrei helarazteko. Olioak batzeko egokitu duten txabolatxoekin lotutakoa da. Alkateak esan digunez, zenbait herritarrek olio birziklatzera eramateaz gainera, olio eramateko erabili duten ontzia hantxe lagatzen dute, botata. Bada, adierazi digu hori ez dela horrela egin behar eta olio txabolako ontzian hustu ostean, erabilitako ontzia bueltan eraman behar dela etxera. /U.M.

## HERRITARRENHITZA/ Manex Agirre • Ikaslea

### Debagoiena cool

Ematen du bailara hau (bailara fantasma hau, Gargartzatik Arrasatera bidean gauzak nola aldatzen ari diren ikustea fantasmagorikoa baita, bertan dagoen txolopotea fantasmagorikoa den bezala) kanpoan ezagutaraztea dela orain kontua, begira Arantzazu zeinen polita den, edo Dorleta, edo Bergarako jauregiak, edo Aramaio San Kristobal. Ados, bihotz eta arima: bailara ederra daukagu, bertako bazterrak ederrak dira. Baina euskal kantari bati entzun nionak pisu gehiegi du niretzat: ez zait Arrasate gustatzen, bertan jendeak ahal duen eta kotxerik onena edukitzea eta

horrelako gauzak bakarrik dauzka buruan. Arrasaten (epizentroa, fagorzentroa) zegoen zineareto bakarra ez hain aspaldi itxi zuten, laster ez da liburu-dendarik egongo, kultur etxearekin arazoak dituzte.

Zein irizpide erabiltzen duzun da kontua. Oso ondo: potentzia ekonomiko bat gara. Autopista polit bat egin behar digute, jende pila bat etorriko da gu ikustera, dirua utziko dute gure taberna



"Biba garapen ekonomiko kanibala"

politetan. Ematen du mundu galduta gabela. Eta ez gara mundu galduta. Pozik nengoke hala bagina. Bitartean, biba garapen ekonomiko kanibala. Eta horren bitartean, eskerrak Oñatiko gaztetxeari, edo jazz musikariari, edo Eskoriatzako nekazarien kexuei.

Etxe gainera pinu basora joan behar naiz eta lau bozgorailu jarriko ditut lau pinutan, koadro bat osatuz, eta erdian

jarriko naiz ni. Urdaiazpiko mordo bat eramango dut jateko eta milaka koka-kola lata edateko. Eta bozgorailuetatik musika oso ozen. Eta hantxe pasako dut eternitatea, bailara polit honetan sartuta, pinu artean, zein polita den bizimodu, hiri zaharrak ahaztu, bizimodu bat ez gatz eta ez piper, esfera berde batean sartuta, musika entzuten, noizean behin hortzakada bat urdaiazpikoari, trago bat kokakolari, eta kieto bertan, Debagoienean, gure bailara maitatuan, eta etortzen diren turistak ni ikustera Arantzazu ikusi ondoren.

## LABUR

### Etzi, domeka, hasiko dira zinema emanaldiak egiten

Udako etenaldiaren ostean, berriro izango dira zinema emanaldiak domeka arratsaldeetan, urritik ekainera bitartean. Alkateak jakinarazi digunez, joan den domekan ziren hastekoak, baina Udalaren ezustekorako, azkenean ez zen emanaldirik izan. Edozelan ere, oraingo domekan filma emateko asmoa dutela jakinarazi digu. Beti-ko moduan, 17:00etan izango da, kultura etxean. Albistea idaztean, zein film emango duten zehaztu barik zuten.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Guruzte Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Pistetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**KZGUNEA, ASTELEHENAN**  
Datorren astelehenean, urriaren 17an zabalduko dute berriro KZgunea. Komunikatu posta elektronikoen bidez mintegia egingo dute, Aitor Madrid tutorearen gidaritzapean. Posta helbidea zela erabili erakutsiko dute, Outlook Express programaren gaineko argibideak emango dituzte, besteak beste. 18:00etatik 20:00ak arteko ikastaroa izango da. Interesa duenak KZgunera joan besterik ez du.

**ARGAZKI LEHIAKETA, ARAMAIO**  
Egunotan bestetan baino argazki kameralari gehiago ikusten dira Aramaion. Izan ere, urriaren 28a gertu dago eta ordurako entregatu behar dira Aramaio bere edertasunean argazki lehiaketarako argazkiak.

**ARGAZKI LEHIAKETA, ZUIA**  
Azaroaren 4rako behar dira argazkiak. Hauxe da helbidea: Zuiako Koadrila, Udaletxeko plaza, 1-2. ezkerra; 01130, Murgia. Astelehenetik barikura 08:30etik 14:30ak arte eraman daitezke edo posta bidez bidali, ziurtatuta.

# Micaela Portilla historialaria eta maistra hil delako, doluminak

UBANE MADERA

**Astelehenean egin zuten hileta elizkizuna Gasteizko San Pedro parrokiaren Micaela Portillari azken agurra egiteko. Zapatuan hil zen Arabako maistra, historialari eta ikertzaile handienetarikoa, 83 urte zituela. Domekan ipini zuten hil-kapera eta martitzenean ehortzi zuten.**

Pertsonaia handiei egiten zaien merezitako agurra izan du Micaela Portilla ospetsuak Gasteizen. Agintari eta herritar ugari izan da egunotan azken agurra egiteko, baita Aramaio ordezkariek ere.

**ARAMAIOREKIN LOTURA**

Aramaio Udalak, berriz, doluminak bidali dizkio. Izan ere, eta Micaela Portillaren gainean argitaratutako artikulu askotan Portillak berak argi uzten zuen moduan, Aramaioarekin lotura dezente izan zuen. Bestelakoen artean, 1945ean, maistra izan zen Untzillan. Horrez gainera, berak idatzitako lan batean baino gehiagoan aipatu izan du Aramaio. Esaterako, Elizbarrutirako landutako katalogoaren azken liburuki edo tomoaren zati handi bat Aramaioaren gainekoa da. Eta behin baino gehiagotan egonda dago Aramaion, bere lanak aurkezten edo Aramaioko artxiboan gordetzen den dokumentazioa erabiltzen. Ondo asko du gogoan Mari Tere

Irasuegik, Aramaio Udaleko idazkari izan zenak: "Osô pertsona adimentsua zen, ona, umila... Xarmangarria. Esaten dudana gutxi izango da. Nik asko estimatu izan dut, miretsi ere bai. Berarekin ibili izan naiz bailara eta artxiboak arakatzeko: Sastiñakoa, Udaleko artxiboa... Ondare garrantzitsua utzi digu. Orain espero dut Jainkoarekin izango dela".

Beste aramaioar batek, Joxemari Velez de Mendizabalek ere ondo asko ezagutu zuen Micaela Portilla. "Batez ere ezaguna izan da lan ikaragarria egin duelako, bereziki arte erlijiosoan. Arabako artea ondoen ezagutu zuen".

*"Berarekin ibili naiz bailara eta artxiboak arakatzeko; ondare garrantzitsua utzi digu"*

*"Batez ere ezaguna izan da lan ikaragarria egin duelako, bereziki arte erlijiosoan"*

Halaber, Micaela Portillaren lanen artean, Velezek nabarmendu du *Gasteizko Elizbarrutiko Katalogo Monumentala* bilduman egin zuen lana; zortzi liburuki idatzi zituen Micaela Portillak: "Arabako artearen gainean dagoen ezinbesteko liburua da hori". Hain zuzen ere, artearen gainean sakondu zuen batez ere historialariak, aztertu eta ikertu egin zuen, "benetako autoritatea" zen, batez ere arte erlijiosoan, Velezen esanetan.

**BIOGRAFIA APUR BAT**

Micaela Portilla 1922an jaio zen, Gasteizen, Siervas de Jesus kalean. Batxilergoa ikasi zuen eta gero, Maisutza eta Filologia eta Letrak. Tesirako *Arabako gotorlekuak eta dorretxeak* gaia aukeratu zuen, 1977an. Arabaren gainean sekula idatzi den Erdi Aroko libururik osoena da, adituen esanetan. Eta oro har, lan handia egin zuen historialari, batez ere lehen aipatu dugun Elizbarrutiko Katalogoan. Portillak jaso dituen izendapenen artean, nabarmentzekoak dira: Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria; EHUREn Honoris Causa eta RSVAPren (Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais) Merituzko Lagun. Horrez gainera, Arabako Alaba Kuttuna ere bazen, Juan Pablo II.ak emandako San Gregorio Magnoren Ordenako Dama eta Aialako eta Kuartangoko Adopziozko Alaba ere bazen, bestelakoen artean.



**Zuhatzara bidaia eta antzerkia**

San Martin Eskolako Diputazioaren bi ekitalditan parte hartu dute urri hasieran. Goiko argazkiak erakusten duen moduan, joan den astean Zuhatzan izan ziren, barneketan, ur-ekintzak egiten. 3., 4. eta 6. mailetako 31 ikasle eta hiru irakasle parte hartu zuten ekimenean. Bestelakoen artean, piragismoa, bela eta windsurfa egin zuten eta kanoetan ibili ziren, begiraleek lagunduta.

Bestalde, eskolako gazte-txoenek —2 urtekoak— *Antzerkia eskolara heltzen da* kanpainaren barruan, antzerkia ikusi dute oraingo astean. Gasteizko Paraiso taldeak landutako antzezlan berezia ikusi dute: eskuz egindako ilustrazioekin animazioa. Ikusgarria da antzezlan eta umeak adi-adi egon ziren Alberto eta Rosi aktoreei begira. Paraiso taldekoek jakinarazi digutenez, aurtengo ikasturtean aurrerago 7-8 urtekoendako lantegi bat ere egingo dute. /U.M.

**LABUR**

**Jon Agirrerren aldeko mozioa aurkeztuko dute**

Jon Agirre Herri Ekimenak mozio bana aurkeztuko du Aramaio eta Arrasateko udaletan, preso aramaioarraren askatasuna eskatzearren alde. "Jonek gaixotasun larriak ditu, eta aske behar du. Hartarako, 92. artikulua aplikatzea eskatu du. Eta hori bideragarri egiteko, denon elkartasuna behar da. Herri-tarron indarrak bakarrik atera dezake Jon dagoen ziegatik". Halaber, gogora ekarri dute Jon Agirrek "hipertentsio arteriala, diabetesa, neuropatia diabetikoa, hiperrizemia eta miopia" dituela. Horrez gainera, mokor bietan interbentzioak egin dizkiote, baita eskumako eskuan ere. "Horrek guztiak osatzen duen koadro medikoa benetan larria da eta bere zaintza egokia egiteko, espetxeak eskaintzen ez dion egoera behar du" Eta gogorarazi dute 64 urte dituela, 25 urte daramatzala kartzelan eta orain dela 10 urte kalean egon beharko lukeela.

**Zabaldu dute Sastiñako erakusketa**

Eguaztenean egin zuten Kaleko XIV. Margo Lehiaketako margolanen erakusketa ipini dute Sastiñan. Hain zuzen ere, urriaren 22ra arte, zapatua, izango dira margolanak ikusgai, Itur Zuri Emakume Elkar-tearen eskutik. Orduetegiari dagokionez, adierazi digute arratsalde zabalduko dutela ermita, iluntze partean pare bat orduz-edo; Jendearen interesen arabera 17:00etatik edo 18:00etatik aurrera zabalduko dutela Sastiña.

**Ardo dastatzea eta Arabako Trikitilari Eguna, Legutianon**

Legutianok antolatzen dituen kultura ekintzen artean, bihar, zapatua, ardo dastatzea egiteko aukera izango du 19:30ean plazara doanak. Musika ere izango da, giroa alaitzen. Horrez gainera, domekan ibilaldia egingo dute, Gesaltzara, 09:30ean. Bestalde, datorren zapatuan, Arabako Trikitilari Eguna ospatuko dute. Goizean, Legutianon bat egingo duten trikitilariak jo eta sua ibiliko dira hauspoie eragiten kalean; gero herri bazkaria egingo dute eta arratsaldean, Epelde eta Larrañagarekin erromeria, besteak beste. Girorik ez da faltako, duda barik.

# Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a / 23. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

## Lasterketa ez izan arren, Josu Irulegi izan zen Gatzagan azkarrena

XABIER URTZELAI

Urteek aurrera egin ahala (aurten hiruugarrena izan da) Gatzagako mendi bizikleta irteera gero eta biribilagoa da. Eta lasterketa ez bada ere, batzuk daukatena ematera irtetzen dira. Horixe erakutsi zuen, besteak beste, Errezilgo Josu Irulegik.

Guztia behar den moduan antolatuta ere, normalean eguraldia da bizikleta irteera bat goitik behera baldintzatzen duena. Eta, domekan Gatzagara hurbildu ziren bizikleta-zaleek hori ere aldeko izan zuten. Nagusien ibilbidea egiteko guztira 152 txirrindulari elkartu ziren, horietako gehienak ibarretik etorritakoak. Batzuek herriraino autoz joatea erabaki zuten, eta animatuenak bizikletan joan ziren Gatzagaraino. 10:00ak pasatxo hasi zen proba, eta lehenengo kilometroak izan ziren nekezak. Dominatik gorako bide estuan 150 bizikleta baino gehiago, ahal zen moduan aurrera: "Hori da Gatzagan daukagun arazoa, herria zuloan dagoela, eta hasierako kilometroetan horrelakoak gertatzen direla", esan zigun Jon Sasiainek. Lehenengo kilometroak izan ziren gogorrenak, baina ertzainen antenara iritsi eta hauspoa erreku-peratuta Usokoaitz inguruetan



AITOR LIZARRALDE

Josu Irulegiren atzetik aretxabaletar bi helmugaratu ziren: Asier Elkorobarrutia eta Haritz Kortabarria.

gura beste gozatu zuten ziklistek. Landara jaitsi ziren gero, eta han, atzealdean etorri ziren hainbat txirrindularik protesta egin zuten, jateko eta edateko gutxi geratu zelako: "Datorren urterako ikasi dugu. Guztiondako janaria zegoen, baina proban esku hartu ez duten hainbat jende ibili da poltsikoak guk ekarritako produk-

tuekin betetzen. Tristeia da, baina horrelakoak ere gertatzen dira", esan zigun Alberto Altubek.

### GAZTAINUZKETAN GORA

Gure Ametsatik Gaztainuzketa, eta handik hasi eta Gatzagara iritsi arteko kilometroak (15 inguru) izan ziren ederrenak, jaitsierak batez ere. Mendi itzu-

li ederra eginda elkartu ziren guztiak (edo gehienak) berriro ere Gatzagan. Manolo Zubillaga ibili zen, mikrofonoa eskuan, hainbat produkturen zozketa egiten; zorteko izan zirenak urdaiazpiko, patxaran edo kafe likoreekin itzuli ziren etxera; besteak esku hutsik, baina ederto gozatuta.

## LABUR

### Martitzenean hasi zuten gazteek pilota ikastaroa

Martitzenean hasi zuten Gurasoen Elkarteak antolatu duen pilota ikastaroa. Bost gazte animatu dira ikastaro horretan parte hartzera, eta datorren asteotan bost gazte horiek Jose Angel Belokiren aginduetara ibiliko dira pilotalekuan jo eta ke. Ikastaroak martitzenetan eta eguaztenetan izango dituzte 18:30etik 19:30era arte. Ikastaroa egitearekin batera, helburua da Gatzagan pilota taldea sortzea. Horretarako, baina, harrobia landu behar da.

### Sorginak taldeak martitzenean egingo du batzarra

20:30ean elkartuko dira Sorginak, Kultura Etxean. Amaia Olabek eman dizkigu batzarrean landuko dituzten gaien xehetasunak: "Batetik, herriko jaietako kontuak ditugu egiteko, eta bestetik, datorren hilabetean egingo dugun San Millan eguneko artisau ferian lanean ibiliko gara: taloak egiten, hirugiharra erretzen... Eta, antolaketa lanen gainean ere egingo dugu berba batzarrean".

## "Onena izango litzateke herritarrak oporretan bidaltzea"

X.U.

Aikia Eraikuntza Enpresakoak atzo hasi ziren herri barruan lanean. Bertako langile Iñaki Egurenek esan digu lan zailena egin dutela, baina herri barruko hodiekin buruhausteak emango dizkietela.


"Onena izango litzateke herritarrak oporretara bidaltzea, horrela askoz ere azkarrago egingo genuke eta lan", esan digu barrez-

ka Iñaki Egurenek. Azken batean, etxeak ezin dituzte ur barik utzi, eta hodi zaharrak kentzearekin batera behin-behinekoak jarri behar dituzte. Eta, horrek asko atzeratzen ditu lanok. Aste barruan ordezko hodi gehiago jartzen ibili dira, eta baita gas deposituak jarriko dituzten lekua horretarako prestatzen ere: "Repsol etxeak bi depositu jarriko ditu, 19.000 litrokoa bakoitza. Eta, horiendako hormigoizko euskarriak jartzen ibili gara.

Depositu horiek lanak amaitzen ditugunean jarriko dituzte".

### MUSEOA ZABALIK

Hainbat egunez itxita egon eta gero, aste barruan ireki dute Gatz Museoa. Sabaiko egurra tratatzeko lanean ibili dira, egurrean sitsa zegoen-eta. Lanok joan den astean amaitu zituzten, baina badaezpada asteburuan ere itxita egon da museoa, egurrari emandako produktuek jendeari kalterik ez egiteko.



Museoa irekita, martitzenerako bisitak izan zituzten.

# Asteazkenetan 22:15ean, ZINEA

16 MM: Euskal zinegileek eginiko film laburren saioa



## URRIAK 19:

### • BELARRA (10')

Koldo Almandoz

Sinopsia: Emakume bat dutxatik irten, jantzi eta, semea besoetan, baserri ondora atera da saskian dituen izara garbitu berriak eguzkitan zabaltzeko. Urrutira, gizon bat belarretan dabil. Umea saski batean eserita dago, eta, bat-batean, handik irten eta belarretan barrena doa...



## AZAROAK 2:

### • BASURDEA (14')

Ane Mitxelena

Sinopsia: Bi arrantzale xumek basurde bat topatuko dute perretxikotan dabilzala. Ezusteko horren ondorioz, amesgaizto batean sartuko dira, eta oso nekez ihes egin ahal izango dute.



## URRIAK 26:

### • ETXERA (9')

Elena Sierra

Sinopsia: Iker izeneko gazte diabetiko batek gose-greba hasiko du, eta horrek kezka eragingo dio bere amari.



## AZAROAK 9:

### • LONG PLAY (23')

Oihan Vega

Sinopsia: Diska denda bateko saltzaileak, dendako diska batekin erlazio obsesibo bat mantentzen du.

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU



**Maulanda**  
merenderoa

Eguneko  
menua

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**IOSU**  
harategia  
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

**H A I Z E A**



Kafetegia  
eta  
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60



TABERNA-BERRI  
JATETXEA

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

**Mirrentxu**



Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita  
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

**IBARRA JATETXEA**

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

**B A S A B E**  
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

**HIRUSTA JATETXEA**



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

**LAGUNAK**  
DASTALEKU  
TEL. 943 71 40 65



*Gustora egoteko!*  
Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

TABERNA  
**ARLUTZ**  
Gustuko musika



Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta**  
taberna  
Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 94 15

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA

**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**Aretz**  
Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Hanburesak  
Pizzak  
Oilaskoak eta  
paellak eramateko

